



Zumaiako Udala

2015IAKU0003-009-001

91. OSOKO BILKURAKO AKTA

Zumaiako herrian, 2015eko apirilaren 30ean, arratsaldeko zazpietan, udaletxe honetako batzar aretoan Udalbatza eratu da ohiko bilkura egiteko, aurrez zehaztutako eguneko aztergaien arabera. Garaiz eta zuzen deitu direlarik, Udalbatzako kide hauek bertaratu dira:

Lehendakaria: Iñaki Agirrezabalaga Alkorta jn.

Bertaratutako zinegotziak:

Iñaki Ostolaza Esnal jn
Arritokieta Gonzalez Elosua and..
Eneko Agirre Maiora jn.
Maitane Agirre Arrieta and.
Peru Fernandez-Arroiabe Txapartegi jn.
Montse Arana Perez and.
Edurne Egaña Manterola and.
Juan Carlos Cendoya Aizpurua jn.
Isidro Fernandez Echave jn.
Aitor Leiza Alberdi jn
Emiliano Cabañas Gonzalez jn.

Ez bertaratuak

Xabier Gallastegi Idigoras jn.

Idazkaria: Gorka Urgoiti Agirre



Zumaiako Udala

2015IAKU0003-009-001

EGUNeko AZTERGAIAK

AURREKO BILERETAKO AKTEN ONARPENA, BIDEZKO BADA:

(85. zbkia - 2014.09.25;

86. zbkia – 2014.10.30

87. zbkia – 2014.11.27

88. zbkia - 2014.12.19

89. zbkia - 2015.01.29

90. zbkia - 2015.02.26)

Aktak onartutzat eman dira

IDAZKARITZA-UDAL ERROlda

PROPOSAMENA:

ZUMAIKO UDAL ERROLDAREN LAGAPENARI BURUZ, GIPUZKOAKO GARRAIOAREN LURRALDE AGINTARITZAREN ETA ZUMAIKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA ONARTZEA, BIDEZKO BADA.

"GIPUZKOAKO GARRAIOAREN LURRALDE AGINTARITZAREN ETA ZUMAIKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA, ZUMAIKO UDAL ERROLDAREN LAGAPENARI BURUZKOA

Donostian, 2014ko

ren (e)(a)n.

ELKARTU DIRA

Alde batetik, andrea, presidente gisa, GIPUZKOAKO GARRAIOAREN LURRALDE AGINTARITZAren (aurrerantzean, GGLA) izenean eta ordezkaritzan.

Ondorio hauetarako berariazko ahalmenarekin esku hartzen du, 2014ko urriaren 31an egindako GGLAren Ohiko Batzar Orokorean onartutako erabakiaren bidez emana.

Bestetik, Iñaki Agirrezabalaga Alkorta jauna, alkate gisa, ZUMAIKO UDALAREN (aurrerantzean, Udalak) izenean eta ordezkapenean.

Ondorio hauetarako berariazko ahalmena du, 2015eko apirilaren 30eko udalbatzaren Osoko Bilkuran hartutako erabakiaren bidez emana.

Esku hartzen duten alderdiek elkarri aitortzen diote lankidetza hitzarmen hau sinatzeko beharrezko legezko gaitasuna.

AURREKARIAK

I.- GGLA, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Donostia, Irun, Errenteria, Eibar, Arrasate, Zarautz eta Hernaniko Udalek osatutako



Zumaiako Udala

2015IAKU0003-009-001

kontsortzio bat da, eta bere xedea Lurrarde Historiko osoa kohesionatzea da, garraio eredu jasangarriaren bidez, eta mugikortasunaren alorrean herri administrazioen helburuak babestea. Bere zereginia, Gipuzkoako Lurrarde Historikoan herritarren mugikortasun iragarria eta kalitatezkoa sustatzea da.

II.- Gipuzkoako Foru Aldundiak, Lurraldebus txartelaren bidez, Lurraldebuseko hiriarteko autobusetan sartutako esparru bat ezartzea lortu zuen, hau da, zonakatze bera, tarifa berak, ordaintzeko modu bera eta hobari/deskontu berak ezarri zituen, eta aldi berean zerbitzu elkarreragingarra da Donostia, Irun, Arrasate, Hernani, Errenteria eta Oiartzungo hiri-autobusekin, baita Renfeko Aldiriak zerbitzuarekin ere. Lurraldebus txartelak hiriarteko garraio publikoaren erabilera areagotzen lagundi zuen nabarmen.

Beste urrats bat emateko eta, Gipuzkoan, Lurrarde Historikoko garraiobide publiko nagusietan tarifen integrazioa abian jartzeko asmoz, etorkizunean beste garraiobide batzuk eransteko aukera irekita utziz, Gipuzkoako Garraioaren Lurrarde Agintaritzak lurrardeko garraio publiko osorako tarifa esparru global bat zehaztu du. Horrela, 2012an, lurrardeko eragile nagusiekin batera (Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostiako Udala, Irungo Udala, Errenteriako Udala, RENFE eta EUSKOTREN), lurrardeko garraio publiko kolektiboan tarifak integratzeko sistema ezartzeko Lankidetza Protokolo Orokorr bat sinatu zuen.

Protokoloak, sistema hori ezartzea sustatzeko lankidetza esparru orokor bat ezarri zuenak, jaso zuen protokolo hori Gipuzkoako Lurrarde Historikoko garraiobide guztietañ sartutako taldeak finkatzean oinarritu beharko litzatekeela, garraiobide guztietañ komunak diren gizarte politikak aplikatuz.

Aipatutako protokoloaren II. Eranskinak tarifa integratzeko sistemako talde bereziak zehaztu zituen, eta talde horiei dagokien txartela lortzeko baldintza gisa ezarri zuen Gipuzkoan erroldatuta egoteko betebeharra.

III.- Kontsortzioko kide diren entitateek txartel bakarraren kudeaketa GGLAri eman zioten, eta Gipuzkoako Lurrarde Historikoko garraio publiko kolektiboan tarifa integratzeko sistema ezartzeko hitzarmenak sinatu zitzuten.

2013ko martxoaren 4an Gipuzkoako Tarifa Integrazioa ezarri zen MUGI markaren mendeian.

Bestalde, 2013ko martxoaren 15ean, Gipuzkoako Foru Aldundiak GGLAri, Gipuzkoan bidaiañen garraio publikoaren tarifa integratzeko sistema kudeatzeko beharrezkoak ziren LURRALDEBUS, S.L.U.-tik eratorritako aktiboa, eskubidea eta betebeharra laga zizkion.

IV.- Egun, taldeentzako 130.000 MUGI txartel baino gehiago daude, hau da, horien titularrak Gipuzkoan erroldatuta egotea eskatzen dutenak.

GGLAren berezko zereginak garatzeak zehazten du beharrezko dela GGLAk egiaztatzea taldeentzako MUGI txartelak eskatzen dituztenak Gipuzkoako udalerri batean erroldatuta daudela.

V.- GGLAren helburu nagusien artean dago erakundearteko lankidetza harremanak areagotzea eta modernizazioa bultzatzea, dauden baliabideak arrazionalizatzea, batetik, baliabide publikoen kudeaketa eraginkorra bilatuz, eta bestetik, erabiltzaileei eta oro har herritarrei zerbitzu hobea eskaintza, lan administratiboak simplifikatz edo izapide jakin batzuk erraztuz, hori guztia, pertsonen intimitate eskubidea zaintzea eta beren datu pertsonalak babesteko beharrezkoak diren bermeak kaltetu gabe.



Zumaiako Udala

2015IAKU0003-009-001

Horregatik guztiagatik, herritarrei zerbitzu hobea eskaintzeko interesa dutenez, Udalak eta GGLAk ulertzen dute egokia dela GGLAk taldeentzako MUGI txartela eskatzen duen pertsonaren bizilekuaren datuak modu telematikoan eskuratu ahal izatea; eta Udala da datu horiek dituena.

Hobekuntza, herritarrei eragozpenak sortzea saihesten den eta zerbitzu publikoetara sartzea errazten zaien neurrian lortzen da, eta aldi berean, udal baliabideak aurrezten direlako, eskaerak artatzeari eta errolda dokumentuak igortzeari dagokienez.

VI.- GGLAren berezko lanak egiteko taldeentzako txartela eskatzen duen pertsonaren bizilekuaren datuak telematikoki eskuratu behar dira. Aipatutako informazioa eskuratzeko, lehentasunez bitarteko informatikoak edo telematikoak erabiliko lirateke eta herritarrek, Udalean dauden beren datu personalei dagokienez dituzten eskubideak eta bermeak babestuta egingo litzateke.

Errolda egiazatzeko izapidea Informatika Zerbitzuen Foru Elkartea enpresaren bidez kudeatuko litzateke.

VII.- Bestalde, GGLAk eskaera egiten duten erabiltzaile guztiei baimena eskatuko die, baita egun txartel horiek dituztenei ere, erroldako datuak eskuratzeko.

Adierazitakoagatik guztiagatik, bi aldeek lankidetza hitzarmen hau sinatzea erabaki dute. Hona hemen hitzarmenaren

KLAUSULAK

LEHENENGOA.- Xedea.

Hitzarmen honen xedea da GGLAk mugi txartelak eskatzen dituzten pertsonek Gipuzkoako udalerriren batean erroldatuta egoteko beharraren eskakizunaren gainean datu pertsonalak erabiltzeko baldintzak ezartzea, baita GGLAk mantendu behar duen konfidentzialtasun esparrua ezartzea ere.

BIGARRENA.- Datu pertsonalen konfidentzialtasuna eta tratamendua.

GGLAk aitortzen du badakiela eskuratzeten duen informazio guzia eta, bereziki, izaera pertsonala duen informazioa erabat konfidentziala dela, eta horren arabera, bere erantzukizunpean, bere buruari betebehar hauek ezartzen dizkio:

1. Informazioa lehenengo klausulan deskribatutako xederako erabiltzea eta hirugarrengoei ez ematea.
2. Egoki lekirokeen edozein betebehar betetzea, indarrean dagoen arau-esparrua eta, zehazki, Datu Pertsonalak Babesteko Lege Organikoa eta hori garatzeko erregelamendua modu zorrotzean errespetatuz.
3. Hirugarrenei informazioa ez jakinaraztea, ez ezagutaraztea, ezta hori gordetzeko ere.
4. Informazioa soilik beren betebeharrak hori ezagutu gabe bete ezin dituzten langileei jakinaraztea.
GGLA sekretu betebeharra betearaztearen arduraduna izango da, beharrezkoak diren neurriak hartuz.
5. Bai GGLA bai bere langileak atal honetan ezarritako konfidentzialtasunaren eta sekretu profesionalaren betebeharri lotuta egongo dira.

HIRUGARRENA.- Segurtasun neurriak.

GGLAk eskuratzeten duen informazio ororen konfidentzialtasuna gordetzeko beharrezkoak diren neurri teknikoak eta antolaketakoak hartzeko konpromisoa hartzen du, bereziki



Zumaiako Udala

2015IAKU0003-009-001

informazio pertsonala, datuen segurtasuna bermatzeko eta horiek aldatzea, galtzea edo baimenik gabe eskuratzea saihesteko moduan.

LAUGARRENA.- Aplikatzeko printzipioak.

Hitzarmen honetan printzipo eta arau hauek bete behar dira:

1. Datuak, dauden zeregin eta beharrera egokituko dira.
2. Eskatzen diren datuak horiek erabiltzeko xedeekiko proportzionalak izango dira.
3. Datuak transmititzeko eta eskuratzeko baliabideak seguruak izango dira.
4. Kostuak eraginkorrik eta ahalik eta txikienak izango dira.
5. Datuak ezingo dira transferitu.

Kasu guztietan, GGLAk, aurretiaz, eragindako pertsonen baimena jaso beharko du horien erroldako datuak eskuratzeko. Emandako baimena jasota geratuko da dagokion espedientean.

BOSGARRENA.- Datuen izaera eta hitzarmenaren xedea gauzatzeko metodologia.

Hitzarmen honen xede diren datuak soil-soilik GGLAren aldetik erabiltzaileen erroldatzea egiaztatzeria mugatuko dira.

Horrela, hitzarmen honetan deskribatutako taldeentzako MUGI txartelak eskatzen dituzten pertsonak Gipuzkoako udalerri batean erroldatutako daudela egiaztatuko da.

Hitzarmenaren xedea burutzeko erabiliko den metodologiari dagokionez, adierazi behar da soil-soilik sistema informatikoak erabiliko direla, SFTP, FTPS edo SSL, esaterako. Dena den, sistema horiek, datu pertsonalak babesteko araudiak eskatzen dituen segurtasun, osotasun eta konfidentzialtasun berme guztiak bete beharko dituzte.

SEIGARRENA.- Ez betetzeak.

Informazio hori modu okerrean erabili edo eskuratzeagatik egon litzkeen erantzukizun penal, administratibo edo zibilak, edo datuak isilpean gordetzearen urratze oro alde batera utzita, eta Datuak Babesteko Espainiako Agentziari edo Datuak Babesteko Euskal Bulegoari (otsailaren 25eko 2/2004 Legeak sortua) dagozkien zereginen kalterako izan gabe, aldeetako batek hitzarmen honetan jasotako betebeharren bat betetzen ez badu, besteari zuzenbide osoz eta berehala amaitzeko ahalmena emango dio.

Edozein arrazoirengatik hori amaitzen denean, GGLAk, berehala, hitzarmena gauzatzearen ondorioz eskuratu ahal izan duen informazio oro itzuliko du, hori edozein euskarritan egonda ere.

Aipatu informazioa itzuli arte, GGLAk hori modu egokian gordeko du.

ZAZPIGARRENA.- Erantzukizuna.

GGLAk, berak edo informazioa eskura dezakeen langileren batek hitzarmen honetan jasotako betebeharretako edozein ez betetzearen ondorioz sortutako kalte-galera guztiengarrena erantzukizuna izango du.

ZORTZIGARRENA.-Hitzarmena amaitzea.

Hitzarmena amaitu egingo da ondoko kausaren bat gertatzen denean:

- indarraldia igaro delako;
- aldeek espreski erabaki dutelako;
- alderen batek hitzarmena salatu duelako, horren arabera beste aldeak bere gain hartutako betebeharrak ez betetzeagatik; betebeharrak bete ez dituen aldeak beste aldeari ez betetze hori dela-eta eragindako kalte-galera guztiengarrena erantzukizuna izango du;
- Gipuzkoako Garraioaren Lurralte Agintaritza desegin delako.



Zumaiako Udala

2015IAKU0003-009-001

BEDERATZIGARRENA.- Indarrean sartzea eta indarraldia.

Hitzarmen hau sinatzen den unean jarriko da indarrean eta GGLAk MUGI txartelak izapidezaren eta igortzearen baldintzaapean egongo da.

Eta adostasuna erakusteko eta hitzarturiko guztia behar bezala jasotzeko, aldeek dokumentu honen bi ale sinatu dituzte, idazpuruan adierazten den tokian eta egunean.

HAMARGARRENA.- Araubide juridikoa.

Hitzarmen honek izaera administratiboa du eta Toki Araubidearen Oinarriak erregulatzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 57. artikulan eta azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 30/1992 Legearen 6. artikulan eta hurrengoetan aurreikusitako araubidea aplikatuko zaio. “

Alkateak gaia aurkeztu du eta zinegotzien ontzat eman dute proposamena eztabaидatu eta bozkatzeari.

ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: 12 boto (6 EH BILDU, 4 EAJ-PNV, 1 PSE-EE, 1 ARALAR)

Kontrako botoak: 0 boto

Abstentzioak: 0 boto

Erabakia: Zumaiako udal erroldaren lagapenari buruz, Gipuzkoako Garraioaren Lurralte Agintaritzaren eta Zumaiako udalaren arteko lankidetza hitzarmena onartu da.

3.- OGASUNA.-

IRIZPENA:

2015eko LEHENENGO KREDITU ALDAKETA BERTAN BEHERA UZTEAREN ERABAKIA ONARTZEA BIDEZKO BADA.

2015eko 1.KREDITU ALDAKETA BERTAN BEHERA UZTEA:

Aurreko Osoko Bilkuran (2015eko Otsailak 26) honako kreditu aldaketa onartu zen 2015ean Udalak zuzenean, Zumaia Lantzenen zorrei aurre egiteko.



Zumaiako Udala

2015IAKU0003-009-001

			Hasierako kreditua	Gutxikuntza	Guztira
1 1000.822.943.00.01 2015	268	ZUMAIA LANTZEN	453.000,00	186.745,42	266.254,58
Hasierako kreditua					
1 1000.332.011.00.01 2015	XX	Epe luzerako maileguaren interesak	0,00	32.798,09	32.798,09
1 1000.933.011.00.01 2015	XX	Epe luzerako maileguen amortizazioa	0,00	153.947,33	153.947,33

Kreditu aldaketa horrela egin zen otsailaren 27an, subrogazioa sinatzea espero zelako. Bainaz ez da sinatu; arazoia izan da "Zumaia Lantzen en Liquidación" izenarekin, ZL oraindik inskribatu gabe zegoela bai notaritzan bai erregistro merkantilean. Inskribazioa egin arte ezin da polizen subrogazioa egin. Bitartean Zumaia Lantzenek, aurre egin behar izan dio otsailaren 28an Zumaia Lantzenek Bankoa-rekin duen honako zorraren kuotari:

Amortizazioa: 37.054,84€

Interesak: 6.630,91€

Gutzizkoa 43.685,75€

Beraz kopuru hau ordaintzeak, gutxitu egingo du aurreko kreditu aldaketaren kopuruen beharrak. Beraz proposatzen diogu Osoko Bilkurari bertan behera uztea onartutako kreditu aldaketa, eta kopuru zehatzak edukitzean benetan dagokion kreditu aldaketa onartzea.

Ondorioz, pasa den martxoaren 17ko Ogasun Batzordean honako botoekin: alde: 4 (2 Bildu, 1 PsOE, eta 1 Aralar), eta bi abstentzio 2EAJ. Kreditu aldaketa honen baliogabetzea hurrengo osoko bilkurara eramatea erabaki zen.

Zumaian, 2015eko martxoaren 18an.
Kontu-hartzalea.

Arritokieta Gonzalezek gaia aurkeztu du eta ondoren bozkatzeari ekin diote.

ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: 12 boto (6 EH BILDU, 4 EAJ-PNV, 1 PSE-EE, 1 ARALAR)

Kontrako botoak: 0 boto

Abstentzioak: 0 boto



Zumaiako Udala

2015IAKU0003-009-001

Erabakia: 2015eko lehenengo kreditu aldaketa bertan behera uztearen erabakia onartu da.

3.2.- KONTU EMAN:

3.2.1.- KIROL PATRONATUAREN 2014KO AURREKONTUAREN 3. KREDITU ALDAKETA.

Kirol Patronatuaren 3.kreditu aldaketa.					
Kreditu gaikuntza.					
2014ko abenduaren 31an, 811/2014 alkate dekretua					
			Hasierako kreditua	Gehikuntza	Guztira
1 0000.227.452.20.99 2014	42	PROFESIONAL INDEPENDIENTEEN ZERBITZUAK	400.000,00	18.127,06	418.127,06
			Hasierako kreditua	Gehikuntza	Guztira
2 0000.310.000.00.10 2014	1	BAZKIDE KUOTAK	550.017,53	17,53	550.035,06
2 0000.310.000.00.11 2014	3	EGUNEKO,HAMABO STALDIKO ETA HILEKO BONOAK	39.110,11	9.110,11	48.220,22
2 0000.399.000.00.04 2014	5	IKASTAR OTAKO SARREAK	26.999,42	8.999,42	35.998,84

Arritokieta Gonzalezek kreditu aldaketaren berri eman du

3.2.- KONTU EMAN:

3.2.2.- SAN JUAN EGOITZAREN 2014KO AURREKONTUAREN 2. KREDITU ALDAKETA.



Zumaiako Udala

2015IAKU0003-009-001

San Juan egoitzaren 2.kreditu aldaketa			Hasierako aurrekontua	Gehikuntza	Guztira
2014ko abenduaren 31an, 812/2014 alkate dekretua					
1 0000.130.000.00.01 2014	1	PERSONAL LABORAL FIJO.	102.315,00	1.371,65	103.686,65
1 0000.160.000.00.01 2014	5	SEGURIDAD SOCIAL	28.300,00	2.567,92	30.867,92
1 0000.160.000.00.04 2014	7	FONDO DE PENSIONES ELKARKIDETZA	3.163,00	234,54	3.397,54
1 0000.163.000.00.05 2014	10	SEGUROS DEL PERSONAL	979,00	0,44	979,44
Guztira			4.174,55		
			Hasierako aurrekontua	Gutxikuntza	Guztira
1 0000.221.000.00.06 2014	22	PRODUCTOS ALIMENTICIOS	101.652,00	4.174,55	97.477,45

Arriokieta Gonzalezek (EH BILDU) kreditu aldaketaren berri eman du.

3.2.- KONTU EMAN:

3.2.3.- ZUMAIAKO UDALAREN 2015eko 2. KREDITU ALDAKETA: GERAKINAREN AURREINKORPORAZIOA LSKO FAKTURAK 2015eko AURREKONTUAN ORDAINTZEKO.

LSK-ko fakturak ordaintzeko aurre-inkorporazioa			Hasierako kreditua	Gehikuntza	Guztira
Partida hauek oraindik sortzeke daude 2015eko balantzean (behin-behinekoak dira)					
1 0100.643.151.00.03 2014	1005	FRONTOIKO URBANIZAZIO PROIEKTUA IDAZTEA	0,00	26.550,01	26.550,01
2 0000.870.000.00.02 2015	690	DIRUZAINITZA GERAKINA KREDITU TXERTAKETA	0,00	26.550,01	26.550,01

Arritokieta Gonzalezek (EH BILDU) kreditu aldaketaren berri eman du.



**3.3.- 2015eko OTSAILEKO ORDAINKETEI AURRE EGITEKO,
INDARREAN EZ DAUDEN ZERBITZU KONTRATUEI ERREPARO ORRIAREN
ETA ALKATEAREN ERANTZUNAREN BERRI EMATEA.-**

KONTU-HARTZAILEAREN ERREPARO ORRIA (3/2015):

AURREKARIAK:

Kontu-hartzaileak, Zumaiako Udaleko kontratuen egoeratz interesaturik honako kontratu hauek epez kanpo aurkitu ditu gaurko egunean:

KONTRATUEN ERANSKINA				
Empresa	Kontratutako zerbitzua	Data Kontratu	Iraupena	data amaitu
GESMUNPAL	Recaudación ejecutiva	26/07/2010	2+2	26/07/2014
GESMUNPAL	Inspección de tributos	10/11/2010	2+2	10/11/2014
Eulen	Kudeaketa Branka y SAD	01/02/2009	1 + 1	01/02/2011
UNI 2	Limpieza edificios-ampliación	19/10/2009	1 año	19/11/2010
UNI 2	Limpieza edificios municipale	01/07/2009	1+1	01/07/2011
Harrespil S.L.	Hilerria-kudeaketa	01/03/2005	1+1	01/03/2007
CESPA, S.A.	Zabor bilketa(RSU)	01/11/2007	mensual	01/12/2007
CESPA, S.A.	Kale garbiketa	01/11/2007	mensual	01/12/2007
CESPA, S.A.	Paioi bat gehitzea lanaldi osoan		mensual	27/12/2007
Irati S.L.	Desratizazioa	01/06/2008	1	01/06/2009
Kastore Gest S.L.	Hainbat zerbitzu	05/11/2009	2+1	05/11/2012
Edukontzi higienikoa	EURO-SERVHI	15/08/2010	1	15/08/2011
Alhondiga atea man	DORMIA	15/05/2011	1	15/05/2012
HITZEKO E.M.U.	Komunikazio plana	01/12/2008	1	01/12/2009
Miren Usua Urbieta	Aita Mari Zinea	4/04/2011 (luzapena)		04/04/2011

a)Aplikagarria zaizkion arauak:

- a.1) 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearren testu bategina onartzen duena.



"23. artikulua. Kontratuaren iraupen-epena."

1. Sektore publikoko kontratuaren **iraunaldia zehazterakoan, kontuan hartu beharko dira prestazioak zer-nolakoak diren eta finantzaketa nolakoa izango den, eta aldian-aldian prestazio horiek lehia bidez eman beharra ere bai,** kontratu jakin batzuei aplikatzekoak diren arau bereziak eragotzi gabe.

Bigarren xedapen gehigarria. Tokierakundeetarako kontratazio-arau bereziak.

1. **Alkateen eta toki-erakundeetako presidenteen eskumenekoak izango dira, kontratazio-organo diren neurrian,** kontratu hauek: obra-kontratuak, hornidura-kontratuak, zerbitzukontratuak, zerbitzu publikoen kudeaketarako kontratuak, administrazio-kontratu bereziak eta kontratu pribatuak, **baldin eta beren zenbatekoa ez bada aurrekontuko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa,** eta ezta, inola ere, sei milioi euro baino handiagoa; orobat izango dira haien eskumeneko mota horietako kontratuak, zenbait urterako direnean, betiere lau urte baino gehiago irauten ez badute eta urteroko guztien zenbateko metatua ez bada lehenengo ekitaldiko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa, ez eta sei milioi euro baino handiagoa ere.

"26. artikulua. Kontratuaren gutxieneko edukia:

1. Sektore publikoko ente, organismo eta erakundeek egiten dituzten kontratuak aipamen hauek jaso behar dituzte nahitaez, pleguetan azaltzen ez badira:

k) Hala egokituz gero, prezioa zein aurrekontu-kredituren edo kontabilitate-programa edo -errubrikaren kontura ordainduko den.

a.2) 21/2003 FORU ARAUA, abenduaren 19ko, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa.

" 67. artikulua. Legezkotasunaren kontrola."

- 1.- Kontuhartze-eginkizunaren helburua, haren legezkotasun kontrolaren ikuspegitik, toki erakunde eta beraien organismo autonomoen egintza guztiak, beti ere hiaeak eskubide eta betebehar ekonomikoak edo gastuak aintzatestea eta likidatzea eragiten dutenean, beraietatik sortzen diren sarrera eta ordainketak eta administratutako ondasuntza publikoen bilketa, inbertsio eta, oro har, aplikazioa fiskalizatzea da, kudeaketa kasuan kasuko aplikatu beharreko xedapenen araberakoa izan dadin.

2.- Eginkizun horren erabilera honako hauek eskuhartuko ditu:

- a) Eskubideak edo betebehar ekonomikoak sortzea edo baloreen fondoak mugitzea eragin dezaketen egintza, agiri edo expediente guztien kontuhartze kritikoa edo aurretiazkoa.

b) Ordainketa-aginduaren erazko kontuhartzea.

- c) **Ordainketaren kontuhartze materiala.** Udalbatzaren erabaki batengatik kontrol hori laginketa bidez baimentzen denean izan ezik, kontuhartzailearen sinadura foru arau honetako 57. artikuluan aurreikusitako fondoan erabilpenerako amankomunatuei erantsiko zaie.

"70. artikulua. Ingerak."

- 1.- Kontuhartze-eginkizuna erabiltzean, organo kontuhartzailea aztergai diren egintzen, agirien edo expedienteen edukiarekin edo itxurarekin ados ez badago, bere ingerak idatziz azaldu beharko ditu erabakia edo ebaezpena hartu baino lehen.

- 3.- Ingera gastuen erabilpenari, betebeharren aintzatespenari edo ordainketa-aginduari badagokio, expedientearen izapidezta etengo da harik eta hora ebaezten den arte, beti ere honelakoetan gertatzen denean:

- c) Expedienteen **funtsezko beharkizun** edo izapideak alde batetara utzi direnean.



4.- Ingerak ukitzen duen organoa berarekin ados ez dagoenean, udalburuak ebatzi beharko du eztabaida, eta beraren ebaazpena betearazibeharrekoa izango da. Ahalmen hau ezin da eskuordetua.

a.3) 27/2013 Legea, abenduaren 27koan, toki-administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzkoa.

Bigarren artikulan Martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Ogasunak arautzen dituen Legearren testu bategina aldatzen du eta honela geratu da aldatuta martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Toki-egasunak arautzen dituen Legearren testu bategina:

“213. artikula. Barneko kontrola.”

Toki-entitateetako organo kontu-hartzaleek ekitaldi bakoitzean garatutako kontrol horien emaitzak jasoko dituen laburpen-txosten bat igorriko diote, urtero, Estatuko Administrazioaren Kontu-Hartzaitza Nagusiari, aurreko lerrokadan adierazitako arauetan xedatutako epea eta edukia errespetatuz.)»

“218. artikula. Desadostasunen ebaazpenari buruzko txostenak.”

1. Kontu-hartzaitzaletzako organoak txostenetan helaraziko dio osoko bilkurari, adierazitako eragozpenei dagokienez toki-entitateko lehendakariak hartutako ebaazpen guztien inguruan; halaber, diru-sarreren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio. Txosten horrek funtzió ikuskatzaleari dagozkion alderdiei eta betekizunei bakarrik erantzungs die, ikuskatutako jarduketen aukera edo komenigarritasunari dagozkion gaiak gaineratu gabe.

Atal honetan jasotzen denak puntu independente bat osatuko du dagokion osoko bilkurako gai-zerrendan.

Korporazioko lehendakariak jarduketaren txosten justifikatzailea aurkeztu ahal izango du osoko bilkuran.

2. Aurrekoari kalterik egin gabe, eta desadostasunak daudenean, toki-entitateko lehendakariak kontrol-organo eskudunari aurkeztu ahal izango dio bere ebaazpena, finantza-tutoretza esleitua duen administrazioaren gaia delako, hain zuzen.

3. Kontu-hartzaitzaletzako organoak txosten bat helaraziko dio urtero Kontu Auzitegiari, toki-entitateko lehendakariak eta korporazioaren osoko bilkurak adierazitako eragozpenen kontra hartutako ebaazpen eta hitzarmen guztien inguruan; halaber, diru-sarreren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio. Dokumentazio horrez gain, tokiko korporazioaren justifikazio-txostenak aurkeztu beharko dira, hala badagokio.)»

b) Indarrean ez dauden kontratu batzuen fakturak iritsi dira eta honako hauek dira:



2015IAKU0003-009-001

FAKTURAREN DATA	FAKTURA ZEINBAKIA	INTERESATUA	KONTZEPTUA	GUZTIZKOA BEZA BARIETATEA
30/11/2014	2014/485	GESMUPAL	Printzipala kobrau izateagatik ordainpartaidetza	2.051,17
31/12/2014	2014/585	GESMUPAL	Printzipala kobrau izateagatik ordainpartaidetza	3.208,22
31/01/2014	1400394	UNI2	Suministro y mantenimiento de bacteriostáticos	274,86
31/08/2014	1405608	UNI2	Refuerzo limpieza realizado en el mes de julio	1.166,08
18/12/2014	14/242	Hitzeko S.L.U.	Zumaia Zu aldizkaria 4 orrialde gehiago abendukoak	622,55
26/11/2014	14/218	Hitzeko S.L.U.	Zumaia Zu aldizkaria 4 orrialde gehiago azarokoak	622,55
15/12/2014	14/241	Hitzeko S.L.U.	Udaleko komunikazio plana diseinatu eta gauzatzea	4.332,56
31/12/2014	1409143	UNI2	Limpieza oficinas ayuntamiento	2.790,02
31/12/2014	1409161	UNI2	Limpieza de ascensores calle Jadarre	209,69
31/12/2014	1409163	UNI2	Limpieza de ascensores calle ardantzabide	212,98

ONDORIOAK:

a) Inguru orri honetan ere, aurreko ingera orrieta **aipatu zen bezala, aipatu behar da** CESPAKO egoera oso larria dela "hilabete baterako" atera zelako bai zabor bilketa zerbitzua eta bai kale garbiketa.

a.1) 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duenaren kontra doa. Honek esaten du:

"23. artikulua. Kontratuen iraupen-epea."

Sektore publikoko kontratuen **iraunaldia zehazterakoan, kontuan hartu beharko dira prestazioak zer-nolakoak diren eta finantzaketa nolakoa izango den, eta aldi-aldean prestazio horiek lehia bidez eman beharra ere bai,** kontratu jakin batzuei aplikatzekoak diren arau bereziak eragotzi gabe.

Beraz ez du zentzurik zerbitzua hilabete iraunaldia izatea eta kontratua publizitaterik gabeko prozedura negoziatu bidez esleitzeak; egunero zaborrak jaso eta kaleak garbitzen direlako urte askotan zehar, eta urteko zenbatekoa handia delako.

b) Zerrendatutako kontratu guztiak irregularitasun egoeran daudelarik, lehenbailehen eguneratu behar dira.

c) Mementoz, zerrendatutako fakturen ordainketaren izapidezta etengo da Alkateak ebatzi arte. Kontu-hartzaleak txostena helaraziko dio Osoko Bilkurari, adierazitako eragozpenei dagokienet alkateak hartutako ebaZen guztien inguruan eta **puntu independiente bat osatuko du dagokion osoko bilkurako gai-zerrendan.**

Zumaiako Kontu-hartzalea
Miguel Zubizarreta Elicegui



155/2015 ALKATE DEKRETUA

AURREKARIAK

2015eko otsailaren 26an kontu-hartzaileak honako erreparo orria jakinarazi dit (3/2015) (603/2015 erregistro zenbakirekin):

Kontu-hartzaileak, Zumaiako kontratuengen egoeraz interesaturik, Udaleko kontratuengen informazioa egunerautu ondoren, honako hauek epez kanpo aurkitu ditu:

KONTRATUEN ERANSKINA				
Entresa	Kontratutako zerbitzua	Data Kontratua	Iraupena	data amaitu
GESMUNPAL	Recaudación ejecutiva	26/07/2010	2+2	26/07/2014
GESMUNPAL	Inspección de tributos	10/11/2010	2+2	10/11/2014
Eulen	Kudeaketa Branka y SAD	01/02/2009	1 + 1	01/02/2011
UNI 2	Limpieza edificios-ampliación	19/10/2009	1 año	19/11/2010
UNI 2	Limpieza edificios municipale	01/07/2009	1+1	01/07/2011
Harrespil S.L.	Hilerrria-kudeaketa	01/03/2005	1+1	01/03/2007
CESPA, S.A.	Zabor bilketa(RSU)	01/11/2007	mensual	01/12/2007
CESPA, S.A.	Kale garbiketa	01/11/2007	mensual	01/12/2007
CESPA, S.A.	Paioi bat gehitzea lanaldi osoan		mensual	27/12/2007
Iratzi S.L.	Desratizazioa	01/06/2008	1	01/06/2009
Kastore Gest S.L.	Hainbat zerbitzu	05/11/2009	2+1	05/11/2012
Edukontzi higienikoa	EURO-SERVHI	15/08/2010	1	15/08/2011
Alhondiga atea man	DORMIA	15/05/2011	1	15/05/2012
HITZEKO E.M.U.	Komunikazio plana	01/12/2008	1	01/12/2009
Miren Usua Urbieta	Aita Mari Zinea	4/04/2011 (luzapena)		04/04/2011

Gaurko egunean oraindik kontratu hauek irregularitasun egoeran daude. Egoera hau jakinarazi zen aurreko erreparo orrian.

Kontu-hartzaileak egindako txostenaren arabera, hainbat kontratu epez kanpo daudela ohartarazten du. Horren aurrean, aplikagarriak zaizkion arauak aipatzeaz gain, indarrean ez dauden kontratu batzuen fakturak iritsi direla zehazten du.

Eta, honako faktura hauen ordaintetaren izapidetza eten du:



Zumaiako Udala

2015IAKU0003-009-001

FAKTURAREN DATA	FAKTURA ZENBAKIA	INTERESATUA	KONTZEPTUA	GUZTIZKOA BEZA BARIE
30/11/2014	2014/485	GESMUPAL	Printzipala kobrau izateagatik ordain-partaidetza	2.051,17
31/12/2014	2014/585	GESMUPAL	Printzipala kobrau izateagatik ordain-partaidetza	3.208,22
31/01/2014	1400394	UNI2	Suministro y mantenimiento de bacteriostáticos	274,86
31/08/2014	1405608	UNI2	Refuerzo limpieza realizado en el mes de julio	1.166,08
18/12/2014	14/242	Hitzeko S.L.U.	Zumaia Zu aldizkaria 4 orrialde gehiago abendukoak	622,55
26/11/2014	14/218	Hitzeko S.L.U.	Zumaia Zu aldizkaria 4 orrialde gehiago azerokoak	622,55
15/12/2014	14/241	Hitzeko S.L.U.	Udaleko komunikazio plana diseinatu eta gauzatzea	4.332,56
31/12/2014	1409143	UNI2	Limpieza oficinas ayuntamiento	2.790,02
31/12/2014	1409161	UNI2	Limpieza dic ascensores calle Jadarre	209,69
31/12/2014	1409163	UNI2	Limpieza dic ascensores calle ardantzabide	212,98

ERABAKI DUT:

Horren aurrean, esleitzena atera behar diren kontratuak prozedurak martxan jartzeko agindua ematen jarraitzen dut. 2014ko abenduaren 19an, Udalbatzak onartutako erabakiaren bidetik, zabor bilketa eta kale garbiketa kontratuak esleitzena ateratzeko prozedurei datak zahaztu zitzazkien. 2015 Otsailaren 12ko dataz, 66/2015 eta 67/2015 Dekretuak, kontratacio espedienteei hasiera emateko erabakiak zehazten dira. Bitarte horretan zerbitzua ematen jarraitu behar denez, ordaindu daitezela emandako zerbitzu horiek.

Zumaian, 2015eko Otsailaren 26an.
Iñaki Agirrezzabalaga Alkorta
Zumaiako Alkatea.

Alkateak Kontuhartzailearen ingera orriaren eta Alkate dekretuaren berri eman du.

3.4.- IRIZPENA:UDAL - INVENTARIOAREN ONARPENA EMATEA BIDEZKO BADA.

INVENTARIOAREN ONARPENAREN IRIZPENA

AURREKARIAK

Zumaiako udalean alde ezberdinatik azkeneko urteetan inventario eguneratu bai izatearen eskaera zegoen, horregatik, 2013ko aurrekontuan inventario eguneratua idazteko aurrekontuan partida sartu zen. Hala ere, lanak ez ziren martxan hasi 2014.urteraino. Lanak



Zumaiako Udala

2015IAKU0003-009-001

bukatu ondoren, eta legediarekin betetzen zuela baieztu ondoren, politikariei ere aurkezpena egin zitzaien sortu den tresnarekin, eta bertan dauden baliabideekin. Kontu-hartzaileak ogasun batzorde honetara dakar gai hau gardentasun lege berriaren ondorioz, bidali behar den beste informazio askoren artean derrigortuta egongo garelako inventarioa aurkeztera. Hala ere, badaki inventarioa guztiz bukatutzat emateko oraindik hirigintzatik lan batzuk egiteke daudela. Baino, bere esanetan legealdia bukatu aurretik onartu beharreko gauza bat da, gardentasun legearen ondorioz beharrezkoa, eta teknikoki gure ondasunen balioak eguneratzeko ere beharrezkoa baita.

IRIZPENA

Ondorioz, 2015eko martxoaren 17ko ogasun batzordean ondorengo botoekin: 6 alde (2 bildu, 1 PSOE, 1 Aralar ; 2 PNV) , inventarioaren onarpena hurrengo osoko bilkurara eramatea onartzen da.

Zumaian, 2015eko martxoaren 18an.
Kontu-hartzailea.

Alkateak irizpena aurkeztu du eta esan du inventario honen gainean aldaketak egin beharko direla.

Edurne Egañak (EAJ-PNV) esan du lokalen egoera zehazki jakitea faltan botatzen dutela eta beharrezkoa dela osatzen joatea.

ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: 12 alde (6 EH BILDU, 4 EAJ-PNV, 1 PSE-EE, 1 ARALAR)

Kontrako botoak: 0 boto

Abstentzioak: 0 boto

Erabakia: Udal ondasun eta eskubideen inventarioa onartu da.

4.- HIRIGINTZA, OBRA ETA ZERBITZUAK.-

4.1.- IRIZPENAK:

4.1.1.- ZUMAIAKO PUNTANUETAKO FRONTOI LUZEAREN GAUZATZE PROIEKTUAREN BIGARREN ALDAKETA ONARTZEA, BIDEZKO BADA.-



Zumaiako Udala

2015IAKU0003-009-001

2015eko Apirilaren 27ko Hirigintza Batzordearen Irizpena: ZUMAIAKO PUNTANUETAKO FRONTOI LUZEAREN GAUZATZE PROIEKTUAREN BIGARREN ALDAKETA

AURREKARIAK

1.- 2003ko otsailaren 19an, Zumaiako Planeamenduko Arau Subsidiarioetako Ardantzabide 07 eremuko jabeek eta Zumaiako udalak hitzarmen bat sinatu zuten, indarrean zegoen planeamendua exekutatu eta kudeatzeko baldintzak eta zehaztapenak ezartzeko. Hitzarmenaren zehaztapenetan, karga urbanistikoaren artean, HJU 02an ezaugarri zehatzak dituen estalitako frontoia eraikitzeko ezarri zen. Frontoiaren aurrekontua 3.155.314,00 €koa (525.000.000,00 pta) zela adierazi zen eta diru-kopuru hori, Estatistikako Institutu Nazionalak argitaratuko Euskal Herriko kontsumitzaleen prezioen indizearen arabera, urtero eguneratu beharko litzatekeela, beraz, exekuzioaren eguneratutako balioa **3.774.356,00 €**tan finkatu zen.

2.- Promociones Salbide S.L. eta Nautica Unanue S.L. merkataritza-elkarretek, proposatu zuten Zumaiako Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 07 HA-Ardantzabideko Konpentsazio Proiektuan azaltzen diren **7.1 eta 7.2 partzelen** titulartasuna emango zutela, frontoia egikaritzeko betebeharren ordainketa gisa.

Akordio hori dela eta, Zumaiako Udala, Zumaiako Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 07 HA-Ardantzabideko Konpentsazio Proiektuan 7.1 eta 7.2 bezala izendatutako hiri-eremuen jabea da eta Udalaren Lursail Ondarearen zati bat dira, ondare izaera bezala sailkatua eta bere kudeaketaren ondorioz sortutako errekursoak frontoia eraikitzera bideratuko dira.

3.- Akordioaren ondorioz, Zumaiako Udala "Zumaiako Frontoi Berri Luzearen" Proiektuaren jabea da. Dena den, proiektua arrerra eramaterik ez zegoenez, exekuziorako Proiektua eraldatzeko esleipena egin zen, horren xedea izanik, lanen exekuzioaren zenbatekoak jaistea. Esleipendun izan zen TOKI ARKITEKTURAK (AMAIA CASADO eta IBON SALABERRIA) egindako proiektu teknikoa. Proiektuaren izena da ZUMAIKO FRONTOI LUZEA EGIKARITZEKO PROIEKTUAREN ERAALDAKETA, exekuzio materialaren prezioa 3.178.510,25 €koa eta lizitazio prezioa 3.591.716,58 €koa da, BEZA barneratu gabe.

4.- Osoko Udalbatzak 2010ko uztailaren 29ko bilkura arruntean, hasierako izaeraz onartu zuen, 07 HAn Arau Subsidiarioetako 34.3 artikulua aplikatzeko hitzarmena; behin betiko izaeraz 2010eko azaroaren 30ean onartu zen (2010/12/3ko GAO). Hitzarmen hori dela eta, Zumaiako Udalak, 7.1 eta 7.2 partzelen jabe bezala, 34.3 artikulua aplikatzearen ondorioz sortutako babes ofizialen %20ko standarraren gehikuntzaren ardura bere gain hartu zuen; 7.1 eta 7.2 partzeletan **38 etxebizitza eraiki daitezke, eta horietatik 6 babes ofizialekoak izango dira.**

5.- Zumaiako Udalak hasiera eman dio "7.1 eta 7.2 partzelen eskualdaketari 02 HJU-Puntanuetako estalitako frontoiaren egikaritzeari dagokion proiektuaren" izapideari. Bertan barneratu dira esleipena arautzeko baldintza teknikoen eta administratiboen plegua, zeinaren arabera, Zumaiako Arau Subsidiarioetako 07 HA-Ardantzabideko Konpentsazio Proiektuko bi partzelen esleipenaren trukean, SABAI S.L. hasieran egindako eta TOKI ARKITEKTURAK (AMAIA CASADO eta IBON SALABERRIA) eraldatuko proiektuaren arabera, Zumaiako Arau Subsidiarioetako 02 HA-Puntanuetan frontoi estalia eraikiko den.

6.- Kontratazio espediente bakarrean esleitzen den kontratua, izaera ezberdina duten bi azpikontratuetan banatzen da:

Alde batetik, ondare izaera duen jabegoaren esleipena, hain zuzen, Zumaiako Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 07 HA-Ardantzabideko Konpentsazio Proiektuaren



Zumaiako Udala

2015IAKU0003-009-001

7.1 eta 7.2 partzelak jabego erregimenean esleitzea, horien xedea izango delarik, jabetza erregimenean salduko diren etxebizitzak, garajeak eta trastetegiak eraikitza, gehienez ere, **38 etxebizitza, eta horietatik 32 etxebizitza tasatuen prezio itundua duten etxebizitza libreak eta 6 babes ofizialekoak izango dira.**

Bestalde, ohiko edo izendatutako kontraprestazioa izaten dena, hau da, esleipendunak obra publiko bat egin behar izana. Hau da, Zumaiako Arau Subsidiarioetako 02 HA-Puntanuetan, estalitako frontoia egikaritza, TOKI ARKITEKTURAK (AMAIA CASADO eta IBON SALABERRIA) egindako proiektu teknikoaren arabera. Proiektuaren izena da ZUMAIKO FRONTOI LUZEA EGIKARITZEKO PROIEKTUAREN ERAFDAKETA. Exekuzio materialaren prezioa 3.178.510,25 €koa eta lizitazio prezioa 3.591.716,58 €koa da, BEZA barneratu gabe.

7.- Kontrataziorako pleguaren I Eransinean jasotakoaren arabera, partzelak baloratu dira hiru milioi, bostehun eta laurogeita hamaiaka mila zazpiehun eta hamasei euro eta berrogeita hamazortzi zentimotan (3.591.716,58 €), BEZA barneratu gabe. Aplikatutako indizea 2,16koa izan da. Balorazio hau egin da, partzelan **38 etxebizitza, eta, horietatik, 32 etxebizitza tasatuen prezio itundua duten etxebizitza libreak eta 6 babes ofizialekoak eraikitza kontuan** izanik.

8.- 2011-09-26, 2011-10-17, 2011-11-21, 2011-12-12, 2012-06-04 y 2012-06-18ko Hirigintza, Obra eta Zerbitzuetako batzordean, informazioa eman zen eta honako lehiaketa egiteko pleguaren proposamena aztertu zen: 02 HJU-Puntanuetan estalitako frontoia eraikitza, Zumaiako Arau Subsidiarioetako 07 HA-Ardantzabideko bi partzela jabetzan eskualdatzearen truke. Halaber, TOKI ARKITEKTURAK (AMAIA CASADO eta IBON SALABERRIA) ZUMAIKO FRONTOI LUZEA EGIKARITZEKO PROIEKTUAREN ERAFDAKETA izeneko eta Zumaiako Arau Subsidiarioetako 02 HA-Puntanuetako estalitako frontoiaren proiektuari dagokion informazioa eman zen.

9.- Ikusirk Zumaiako Frontoi Luze berriaren Obra zuzendaritzak proiektuaren Aldaketa proposatu zuela proiektuan atzemandako akatsak eta indefinizioak sahesteko. Hartara, ZUMAIKO PUNTANUETAKO FRONTOI LUZAREN GAUZATZE PROIEKTUAREN BIGARREN ALDAKETA (SEGUNDA Modificación de Proyecto de Ejecución del Nuevo Frontón Largo en C/ Bitoriano Arrate (Puntaneta I)). ZUMAIA, izendatutako txostena bidez justifikatu du Obra Zuzendaritzak.

10.- kusirk, bestetik, Idazkariaren txostenak azaldutakoa; 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen testu bategina onartzen duenak, ezartzen dituen irizpideak kontratuaren aldaketak egin ahal izateko.

11.- Ikusirk 2014 Ekainaren 26an Osoko Bilkurak kontratacio mahaik alegia, Obra zuzendaritzak Zumaiako Frontoi Luze berriaren inguruan proposatu duen proiektuaren Aldaketari eta aipatu akatsak eta indefinizioak sahesteko aldera oniritzia eman ziola aldaketaren tramitazioa abiarazteko.

12.- Sektore Publikoaren Kontratuaren Legearen testu bateratua onartzen duen, azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 234 artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratistari eta proiektuaren egileari audientzia eman izanaren izapidea egin da.

IRIZPENA

Ondorioz, 2015ko Apirilaren 27ko Hirigintza, Obra eta Zerbitzuetako Batzorde informatzaileak, honako botoekin:

Alde: Iñaki Agirrezabalaga (EH-Bildu)
Aitor Leiza Alberdi (Aralar)
Emiliano Cabañas (PSE)
Montse Arana (EAJ)
Isidro Fernández (EAJ)



Zumaiako Udala

2015IAKU0003-009-001

Aurka: 0

Abstentzia: 0

ALDEKO irizpena eman du eta proposamen hau udalbatzaren osoko bilkuraren iritzipean jartza erabaki du, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozeduraren Arautegiaren 135.3 artikuluak xedatutakoaren arabera, araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertain dauden gehiengoa beharko delarik, apirilaren 2ko 7/1985 Toki Erakundetako Oinarrietako 47. artikulan ezarritakoaren arabera, honako **PROPOSAMENA** egin da:

1.- Udal Zerbitzu teknikoek idatzitako ZUMAIKO PUNTANUETAKO FRONTOI LUZEAREN GAUZATZE PROIEKTUAREN BIGARREN ALDAKETA (Bitoriano Arrate Puntanueta I) ONARTZEA.

Alkateak gaia aurkeztu du.

Montse Arana (EAJ-PNV) Arganzoniz jaunak aurkeztutako txostena aipatu du.

Edurne Egañak (EAJ-PNV) esan du Udalak erantzuna eman beharko liokeela idatzian esandakoari.

Alkateak esan du batzordean tratatuko dutela gaia.

ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: 12 boto (6 EH BILDU, 4 EAJ-PNV, 1 PSE-EE, 1 ARALAR)

Kontrako botoak: 0 boto

Abstentzioak: 0 boto

Erabakia: Zumaiako Puntanuetako Frontoi Luzearen Gauzatze Proiektuaren Bigarren Aldaketa Onartu da.



Zumaiako Udala

2015IAKU0003-009-001

4.1.2.- "GILTZAGUNE" PROIEKTUA BURUTZEKO ZUMAIAKO UDALA ETA GFAren ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA ONARTZEA BIDEZKO BADA.-

2015eko apirilaren 27ko Hirigintza, Obra eta Zerbitzuetako Batzorde informatzailearen irizpena, "Giltzagune" proiektua burutzeko lankidetza hitzarmena onartzeari dagokiona.

AURREKARIAK

- 1.- Gipuzkoako Foru Aldundiko Foru Administrazio eta Funtzio Publikoko Departamentuak, egitura organiko eta funtzionalari buruzko 2012ko apirilaren 2ko 14/2012 Foru Dekretuaren 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, bere gain dauzka Gipuzkoako Foru Aldundiari indarrean dagoen Arautegiak babes zibilean, suteen prebentzio eta itzalketan eta sorospenean esleitzen dizkion eginkizunak.
- 2.- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 1985eko apirilaren 2ko 7/85 Legeak 25. artikuluan xedatutakoaren arabera, Zumaiako Udalak eskumena dauka trafiko eta mugikortasun arloetan.
- 3.- Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren 1997ko ekainaren 26ko 8/1997 Legeak xedatutakoaren arabera, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua Ente Publikoa Autonomia Erkidegoko erakunde da eta zuzenbide pribatuko erakunde publiko izaera du, bere menpeko zerbitzu-erakunde publikoen bidez zerbitzu sanitarioak ematea helburu duela.
- 4.- Udal batzuek "Giltzagune" izeneko proiektu pilotuan parte hartu zuten, hitzarmenaren I. eranskinean zehaztutakoa, larrialdietako zerbitzuak udal honetako trafiko mugatuko kaleetan errazago sar daitezen, giltzen edo aginteen bidez aktibatzen diren pibotak edo bestelako oztopoek sarrera eragozten dutenean.
- 5.- Aipatu proiektua formalki burutzea beharrezkotzat jotzen da hitzarmen hau sinatz, suhiltzaileak, eta beste larrialdietako zerbitzuak, osasun zerbitzuak bereziki, trafiko mugatuko eremu horietan azkar esku hartu ahal izateko.

Adierazitakoa kontuan hartuta,

IRIZPENA

Ondorioz, 2015eko apirilaren 27ko Hirigintza eta Obra eta Zerbitzuen Batzorde informatzaileak, honako botoekin:

Alde: Iñaki Agirrezabalaga (EH-Bildu)

Aitor Leiza Alberdi (Aralar)

Emiliano Cabañas (PSE)

Montse Arana (EAJ)

Isidro Fernández (EAJ)

Aurka: 0

Abstentzia: 0

ALDEKO irizpena eman du eta honako Proposamen hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozeduraren Arautegiaren 135.3 artikuluak xedatutakoaren arabera, araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan



Zumaiako Udala

2015IAKU0003-009-001

daudenengehiengo simplea beharko delarik, apirilaren 2ko 7/1985 Toki Erakundetako Oinarrietako 47. artikuluan ezarritakoaren arabera, ondorengo PROPOSAMENA egin da:

Lehena.- Giltzagune proiektua burutzeko, Zumaiako udala eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko lankidetza hitzarmena onartzea.

Bigarrena.- Alkateari ahalmena ematea aipatu hitzarmena eta hori egikaritzeko beharrezkoak diren dokumentu guztiak sinatzeko

Hirugarrena.- Hitzarmena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki taulan argitaratzea.

Laugarrena.- Erabaki hauek Gipuzkoako Foru Aldundiaren Foru Administrazioa eta Funtzio Publikoko Departamentuari eta Osakidetzari jakinaztearaztea

Zumaian, 2015eko apirilaren 27an

Hirigintza, Obra eta Zerbitzuetako Batzordeburua
Iñaki Agirrezabalaga Alkorta

Alkateak gaia aurkeztu du eta ondoren bozkatzeari ekin diote.

ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: 12 boto (6 EH BILDU, 4 EAJ-PNV, 1 PSE-EE, 1 ARALAR)

Kontrako botoak:

Abstentzioak:

Erabakia: “Giltzagune” Proiektua Burutzeko Zumaiako Udala Eta Gfaren Arteko Lankidetza Hitzarmena Onartu da.

5.- PERTSONALA.-

5.1.- IRIZPENAK:

5.1.1.- UDALEKO LUDOTEKAKO HEZITZAILE LANPOSTUA BETETZEN DUEN SANDRA PEREZ MANTEROLA ANDEREAREN BATERAGARRITASUN ESKAERA ONARTZEA, BIDEZKO BADA.



Zumaiako Udala

2015IAKU0003-009-001

2015eko MARTXOAREN 17KO PERTSONAL BATZORDEAREN IRIZPENA, UDALEKO LUDOTEKAKO HEITZAILE LANPOSTUA BETETZEN DUEN SANDRA PEREZ MANTEROLA ANDEREAREN BATERAGARRITASUN ESKAERA AURREKARIAK

1.- 2015eko martxoaren 6an Udaleko ludotekako heitzalea den Sandra Perez Manterola andereak, lanpostuaren titularra den Alaitz Zubalegui Azpeitia anderearen baja egoera betetzeko kontratatu denak, bateragarritasun eskaera egin du alde batetik, aisiaaldi eta kirol jardueretako erakunde pribatua den Txintxirrin-Kirol Kultur Elkartean aisiaaldiko begirale gisa lan egiteko eta bestetik, gizarte heitzalea gisa Asociación Heziberb Educación y Servicios erakunde pribatuan gizarte heitzale gisa aritzen jarraitzeko.

2.- Bateraezintasunari buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legearen 11 artikuluaren arabera administrazioan burutzen diren jarduerak eta jarduera pribatuan burututakoak lotura dutenean bateraezinak izango dira.

3.- Aipatutako Legeko 12 artikulan administrazioko langileek ze jarduera pribatu ezin dituzten burutu arautzen du:

- Lanpostu publikoan azken bi urtetan parte hartu duen gaietan zer ikusia duten jarduera pribatuetan parte hartza.

- Enpresa pribatuko administrazio kontseiluko partaide izatea eta enpresa honen jarduera administrazio publikoko departamentuko gaietan zuzenean lotuta dagoenean.

- Sektore publikoan parte hartzen duten enpresatako kargu bat izatea.

- Aurreko paragrafoan aipatutako enpresetan %10ko parte hartza izatea.

4.- Aipatutako legeko 16 artikulan arabera erabateko baliagarritasun gehigarria daukaten postuei ezingo zaiela bateragarritasunik aitortu.

5.- Udalhitzeko 76 artikuluak dio erabateko baliagarritasunak (disponibilidad) eta lanaldi luzatua duten lanpostuak gehienez %25ko osagarria izango dutela.

6.- Langileak, eskaerarekin bat aurkeztu dituen kontratuak aztertutik, baieztagatzen da, alde batetik, bi erakunde pribatuetan lanean jarduten duen ordutegia bateragarrria dela udal ludotekan heitzalea gisa lanean jarduten duen ordutegiarekin eta bestetik, erakunde pribatuetan betetzen dituen ardurak ez dutela zer ikusi lanpostu publikoan betetzen ari den ardurekin, azken bi urteetan parte hartu duen gaietan edo etorkizunean beteko dituen ardurekin.

7.- Kontuan izanik eskatzaileak %70ko lanaldia duela eta aipatutako egoeratan aurkitzen ez dela, ez da arazorik ikusten bateragarritasun eskaera aitortzeko.

IRIZPENA

Ondorioz, 2015eko martxoaren 17ko Pertsonal Batzorde informatzaileak, ondorengo botoekin:

Alde:
Iñaki Ostolaza (EH-Bildu)
Arritxu Gonzalez (EH-Bildu)
Edurne Egaña (EAJ)
Montse Arana (EAJ)
Emiliano Cabañas (PSE-EE)

ALDEKO irizpena eman du eta honako Proposamen hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozeduraren Arautegiaren 135.3 artikuluak xedatutakoaren arabera, araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenengen gehiengo simplea beharko delarik, apirilaren 2ko 7/1985 Toki Erakundetako Oinarrietako 22.2.i) eta 47. artikulan ezarritakoaren arabera, ondorengo PROPOSAMENA egin da:

1.- Sandra Perez Manterola andereari Txintxirrin Kultur Elkartea eta Asociación Heziberb Educación y Servicios erakunde pribatuetan lanean jarduteko bateragarritasun eskaera aitortza, beti ere abenduaren 26ko 53/1984 Legeko 12 artikuluak diona kontuan izanik:

Honako jarduerak ezingo ditu egin:

1.- Lanpostu publikoan betetzen ari den ardurekin, azken bi urteetan parte hartu duen gaietan edo etorkizunean beteko dituen ardurekin zer ikusia duten jarduera pribatuetan parte hartza.



Zumaiako Udala

2015IAKU0003-009-001

2.- Enpresa pribatuko administrazio kontseiluko partaide izatea eta enpresa honen jarduera administrazio publikoko departamentuko gaietan zuzenean lotuta dagoenean.

3.- Sektore publikoan parte hartzen duten enpresatako kargu bat izatea.

4.- Aurreko paragrafoan aipatutako enpresetan %10ko parte hartzea izatea.

Iñaki Ostolazak (EH BILDU) gaia aurkeztu du eta ondoren bozkatzeari ekin diote.

ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: 12 boto (6 EH BILDU, 4 EAJ-PNV, 1 PSE-EE, 1 ARALAR)

Kontrako botoak: 0 boto

Abstentzioak: 0 boto

Erabakia: Udaleko ludotekako hezitzaila lanpostua betetzen duen sandra perez manterola anderearen bateragarritasun eskaera onartu da.

5.1.2.- ZUMAIAKO UDALEKO 2015eko PLANTILA ETA LANGILEEN LANPOSTUEN ZERRENDAREN ALDAKETA ONARTZEA, BIDEZKO BADA.-

“2015eko APIRILAREN 21eko PERTSONAL BATZORDEAREN IRIZPENA, ZUMAIAKO UDALEKO LANPOSTUEN ZERRENDA ETA PLANTILLA ORGANIKOAREN ALDAKETARI BURUZKOA, UDAL BRIGADAKO 2 OFIZIAL PLAZAK ETA PEOI PLAZA BAT SORTZEAREN ONDORIOZ.

AURREKARIAK

1.- 2014ko abenduaren 15eko datarekin, udal arkitektu teknikoak, zerbitzuetako arduradunarekin batera eta hirigintza, ingurumen eta obra saileko arduradunaren oniritziarekin, brigadaren pertsonal-egituraren proposamena jasotzen duen txosten teknikoa egin zuen.

2.- 2015eko martxoaren 16ko hirigintza batzordean proposamenaren berri eman zen. Txosten teknikoak, proposatzen den zerbitzua modu egokian eman ahal izateko, indarrean dagoen Lanpostuen Zerrenda eta Plantilla Organikoan sortuta dauden 2 ofizial eta 2 peoi plazet gain, beste bi ofizial eta 2 peoi plaza berri sortzea jasotzen du.



2015IAKU0003-009-001

3.- Udal gobernuak, txosten teknikoan proposatzen den pertsonal-egitura sortzearen alde azaldu da.

4.- Hala ere, onartuta dauden 2015eko aurrekontuetan, proposatzen diren plaza berriatik, 2 ofizial eta peoi baten plazei dagokien dotazio ekonomikoa aurreikusi denez, egoki ikusi du momentuz, 2 ofizial plazak eta peoi plaza bat sortzea eta etorkizunean, dotazio ekonomikoa aurrekontuetan jasotzen den unean, beste peoi baten plaza sortzearen borondatea azaldu du.

5.- Bestetik, plaza berriei dagozkien hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun daten inguruan, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila- Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzak bidalitako txostenean jasotakoa aintzat hartzea eta lanpostuen zerrendan jasotzea erabaki da.

6.- Apirilaren 12ko 7/2007 Legeko 74 artikuluak dionaren arabera, Herri Administrazioek lanpostuen zerrenden bitartez egituratuko dute beren antolamendua. Zerrenda horietan, gutxienez, honako hauek jaso behar dira: lanpostuen izena, lanbide-sailkapeneko taldeak, hala dagokionean, atxikita dituzten kidegoak edo eskalak, lanpostuak betetzeko sistemak eta ordainsari osagarriak.

7.- Aurretik esandako kontuan izanik, Udaleko beharrei aurre egiteko eta Langileen Lanpostuen Zerrenda eta Plantilla Organikotik ondorioztatu daitezken betebehar ekonomikoak 2015eko aurrekontuan, I Kapituluari dagokionez, nahiko kreditu dagela kontutan izanik, beharrizko ikusten da proposatzen diren aldaketak onartzea.

IRIZPENA

Ondorioz, 2015eko apirilaren 21eko Pertsonal Batzorde informatzaileak, ondorengo botoekin:

Alde: Iñaki Ostolaza (EH-Bildu)
Arritu Gonzalez (EH-Bildu)
Aitor Leiza (Aralar)

Kontra: Montse Arana (EAJ/PNV)
Emiliano Cabañas (PSE-EE)

ALDEKO irizpena eman du eta honako Proposamen hau udalbatzako osoko bilkuraren irizipean jartzea erabaki du, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozeduraren Arautegiaren 135.3 artikuluak xedatutakoaren arabera, araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo simplea beharko delarik, apirilaren 2ko 7/1985 Toki Erakundetako Oinarrietako 22.2.i) eta 47. artikulan ezarritakoaren arabera, ondorengo PROPOSAMENA egin da:

1.- Ondoren eransten den Zumaiako Udaleko 2015eko langileen lanpostuen zerrenda eta plantilla organikoaren aldaketaren onarpena ematea.

2.- Aipatutako zerrenda, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik, hamabost lanegunetan, jendaurrean jartzea. Egun hauetan interesatuak zerrenda ikusi eta Udal batzaren aurrean erreklamazioak jartzeko aukera izango dute. Jendeari erakusteko epea igarotzen bada inolako erreklamazio edo oharpenik jaso gabe, Langileen Lanpostu Zerrenda behin betiko onartuko da.

3.- Langileen Lanpostuen Zerrenda behin betiko onartzen denean, oso osorik Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.



Iñaki Ostolazak (EH BILDU) esan du Lanpostuen zerrendaren aldaketa bat ekartzen dutela eta aldaketa honetan proposatzen dutela bi ofizial eta peoi baten plazak sortzea; aurrekariak azaldu ditu esanaz, arkitekto teknikoari eskatu ziotela egiteko brigadaren organigrama bat edo behintzat zer nolako egitura eduki beharko lukeen bere ustez eta hori eztabaidean da hirigintzako batzordean. Bertan azaltzen dira brigada buru bat lau ofizial eta lau peoien beharra, aurrekontuak aurkeztu zituztenean aurrekontuen barruan zeuden brigada burua, lau ofizial eta hiru peoi, beraz beraiek hona ekartzen dute gehitzea bi ofizial eta peoi bat.

Edurne Egañak (EAJ-PNV) esan du azken urtean aurrekontua onartu zenetik eduki duten desadostasun sakonenetako bat gai hau izan dela, hain zuzen ere; beste teknikariaren postua sortu zuela udal gobernuak, turismoarena, alegia, eta hemen han esandako berdina eta aurrekontuen eztabaidean esandako berdina berretsi behar duela, eta hala berresten duela baita ere kasu honetan idazkariaren txostenak, non esaten den berriro ere legearen kontrako erabaki bat izango dela RPT-aren aldaketa hau onartu izanez gero. Bide batez, idazkariaren txostenetan aipatu duenez gero kontu hartzailearen txostenaren gabezia azaleratu nahiko lukeela, ez baitaki, hor forma akats badagoen baina espedientean ez dago kontu hartzailearen txostenik eta eragin ekonomikoa izan badu erabaki honek, hori orduan jaso izan dadila forma aldetik ere.

Legetasunaren harira, erabat, bat egiten dutela idazkariak esaten duenarekin eta berak beste kontu bat ere erantsi du, zeren, dauden murrizketak ezarrita dauden murrizketak edo limitazioak pertsonal gastuei ezarrita dauden legezko murrizketak edo limitazioak ados egon edo ez egon limitazio horiekin, honek ez du esan nahi ados daudenik, ustez ez diote aspeko kuantitaboari bakarrik eragiten, hau da, igo egiten dela lehenengo kapitulua edo ez dela igotzen lehenengo kapitulua; bere ustez aspeko kualitatiboari ere bai, zeren, aipatzen du termino homogeneotan ez dela egoerarik egon behar lehenengo kapituluaren kreditu gastuan, orduan termino homogeneoa aipatzen den heinean nahi du esan urte bateko RPT-a eta beste urteko RPT-ak alderatu ahal izateko bien arteko balorazio bat egin ahal izateko modukoak izan behar dutela, beraz ez kuantitatiboki bakarrik baizik eta kualitatiboki ere homogeneoak izan behar dutela, beraz, idazkariaren txostenak kontuen aspektoa aipatzen du, lehenengo kapituluaren gehikuntza bat ekarriko duela eta nire ustez badago beste kontu bat ere kualitatiboa dena, hau da, RPT-ak homogeneoa izan behar duela, ba, Spainiako estatuak ezarri duen limitazio horrekin betetzeko, beraz, badago beste arrazoi bat gaurko erabaki honen ez legetasuna justifikatzeko.

Jarraitu du esaten beste kontu bat dela aurrerakinakoa edo fondokoa, eta da beharrarena eta justifikazioarena, Iñaki Ostolazak esan duela arkitektoaren txosten bat dagoela non bere ustez beharra, bere ustez beharrak azaltzen dituena; beraien impresioa izan da -eta usten du urbanismoko komisioan hala



2015IAKU0003-009-001

azalduko zela edo behintzat hori izan da beti beraien artean egin duten balorazioa- txosten hau eskuan izan zuten lehenengo momentutik, hau dela emaitza eman eta eragina prestatu, atzetik aurrera egindako txosten bat, aurretik atzera egindako txosten bat izan beharrean, hau da, manikia eman eta jantzi iezadazu, eta txosten hori da erabaki politiko bat janzteko txostena bat, erabakia hartuta dagoela, hau da, honela izan behar duela brigadak eta orduan bilatu iezadazu zeregin gehiago orain egiten direnak baino, zeregin gehiago hau justifikatu ahal izateko; beraiek horrela ikusten dutela txosten hau eta ez alderantziz beharrak daude eta nik behar hauen arabera lehenengo kapituluaren igoera bat eskatzen dizuet eta hori da berez; gaineratu du, RPT-aren definizioa dauden beharrei erantzuna emateko zer gisa baliabide behar diren eta beraien ustez ez dela hori egiten, zergatik behar berriak sortzen dira eta beretzako hori oso egokia ez izateaz gain egiten den txostena ere oso, oso arina da, ze hor esaten da eraginkorra aipatzen da baina ez da inoiz demostratu eraginkortasun hori eta behin eta berriz eskatu dutela, zergatik da eraginkorragoa oraingo egoera hau, hau da, zortzi pertsonaz osatutako brigada lehen zegoen egoera baino, datuetan ikustea edo... ez da inoiz balioztapen bat egiten eta sinetsi egin behar dutela; orduan, beraiek ikusi nahiko zuketela eta hala baldin bada onartu egingo zutela, baina ez dutela inoiz frogatu edo ikusi datuetan non dagoen eraginkortasun hori.

Aipatzen dela, esan du, ondorio batzuek izango dituela erabakiak, hau da, behar berri batzuek hartuko dituela edo egin behar berri batzuek hartuko dituela brigadak orain arte hartuta ez zeuzkanak, eta horien artean ur saneanmenduaren kontua, non badagoen hitzarmen bat Gipuzkoako urarekin ukitu egin beharko dutela horrek ondorioak izango dituela esaten du gainera literalki eta gero ez da aipatzen ondorio horietaz edo ez da sakontzen, orduan zer ondorio? Zeren klarorik orain dela hilabete batzuek hona etorri zenean udal gobernuak eta ur zerbitzukoak beraiek ere etorri ziren azalpen batzuek ematera EAJ-PNVek hala eskatuta, sistemaren kudeaketa integrala planteatu zutelako beste herriean dagoena eta badirudi Zumaia zela exzeptioetako bat eta alde zegoen udal gobernuak momentu hartan, orain erregulazio bat eman da, zertan oinarrituta? Ez dela gehiago hitz egin ordutik hona gaiari buruz eta orain batbatean aurkitzen dela txosten bat, non esaten den orain gainera ez orain gauden egoeran gainera kendu egingo dizkiogula gainera, o sea, goaz beste muturrera, mutur batetik beste muturrera pasatzen gara, o sea, orain dela hilabete batzuek emateko prest geunden zerbitzu integrala eta orain gainera dena kendu, orain daukana ere kendu egingo duela; orduan, zertan oinarritzen den udal gobernuak horretarako, galdezu du.

Bere ustetan gauzak erabakitzetan direnean ezin daitezkeela parches-parche egin, osotasuneko azterketa bat egin behar dela eta ikusi zergatik hartzen diren erabaki batzuek. Eta hori da EAJ-PNVek brigadaren inguruaren duen jarrera, ez baitaude lehenengo kapituluaren ez igotzearen alde; aurrera segitzeko borondarea zutela baina eskatzen zutela hain zuzen ere, azterketa orokorra egitera udaletxe guztiaren beharrei buruzko azterketa bat, zeren, badakigu beste zenbait departamentuetatik txostenak ere bidali direla beraien beharrak pertsonal beharrak adierazten eta ez eginkizun berriak sortzeko edo egiteko, baizik eta orain dauzkatenak edo legeak ezartzen dizkien erantzukizunei aurrera egiteko, eta aldiz erabakitzetan da brigada egitea eta turismo egitea baina azterketa orokor hori egin gabe eta agian badaude lehenengo kapituluaren igotzea arrazoiak baina ez dakitela zein diren, ez da egin azterketa orokor



2015IAKU0003-009-001

hori eta benetan erabaki zein diren lehentasunak ze kriterioen arabera egiten den eta nola eta denon artean adostu zeren berak ikusten duela badaukala entitate nahikoa akordio baten fruitu izateko; hori izan delako etorkizunaren udaletxearen etorkizunaren eta pixu handia daukadalako azkenean. Bukatzeko azpimarratu du brigadaren kontra ez daudela eta 1. Kapitulua igotzearen kontra ez daudela, baina bai inprobisazioz jokatzearen kontra, udaletxe batek brigada dimentsionatu bat, bere beharrei dimentsionatutako brigada eraginkor bat behar duela hain zuzen ere.

Emiliano Cabañasek (PSE-EE) esan du harritu duela kontuhartzailaren txostenik ez egotea aurrekontuetan jatorria duen gaia baita. Hemen erabaki politikoa hartu dela benetako beharrak jakin aurretik. Ez dagoela kontratazioaren aurka, baina legea ez betetzearekin ez duela bat egiten; espero du etorkizunean gaurko erabakiak ondorio larririk ez ekartzea. Azterketa sakonago baten ondorioa izan beharko zukeela zenbat langile edo zein egitura izan behar duen brigadak, zeren aurrerago zenbait baldintza aldatuko balira 1. Kapituluko gastu hori alperrikakoa izan liteke. Zalantzan jarri du Zumaiako udalerriaren tamainak hain brigada potentea edukitzea justifikatzen duen, haundi xamarra iruditzen baitzaio herriaren biztanleak kontuan izanda.

Alkateak esan du "que niega la mayor", ezkerreko ikuspegia dutela eta hartara batzuek era zuzenean kontratatzen baldin baditugu eta exekutatzen baldin baditugu herrientzat eta herritarrentzat askoz ere baliagarriago dela, hori da gure eskaintza politikoa horretarako aurkezten gara hauteskundeetara, batzuek irabazten dute besteak ez dugu irabazten baina kontsekuenteak saiatzen gara izaten eta horretarako aurkeztu gara hauteskundeetara eta ezkerreko ikuspegi hori saiatzen gara ekartzen gu behintzat udaletxe honetara. Politika hori garatu nahi dutela eta hortaz brigada indartu nahi dutela kasu honetan, eta teknikariaren gana joan direla eta esan diotela, baina eta hemendik aurrera teknikariengan lagatzen dutela, n iritzi teknikoen bitartez, ze nolako brigada izan behar duen eta zer nolako egitura izan behar duen brigada horrek, eta hor eta berak usten du arkitekto teknikoak egindako txosten horretan esplikatu zuenean agerian jarri zen moduan berak inongo koakziorik gabe eta bere esperientziaren arabera eta adibide ezberdinak medio azaldu zuela beretzat Zumaiako kasuan komenigarriena izango litzatekeela txostenean jasotzen den brigadako egitura bat egotea. Ez dutela zentzu horretan inor koakzionatu juxtu alderantziz, berak egindako txosten bat dela, txosten horri bakoitzak zeuzkan dudak e.a. azaltzeko batzorde berezi bat ere egin zela, gaur hemen entzun ditudan zenbait gai ez ziren azaleratu batzorde horretan eta dagoen brigada azaldu zena dela eta batzordeko aktetan jasota egongo delako gutxieneko brigada bat osatzea izango litzakeela hori; horregatik bere harridura azaldu du baita ere Emilianok esan duenean bere ustez daukagun biztanle kopururako ehundoko brigada kopuria izango litzatekeela, hain zuzen, hor aurreikusten dena teknikoaren iritzian oinarrizko brigada bat edukitzea besterik ez denean. Eta oinarrizko brigada horrek egingo lituzkeen eginkizunen artean, hain zuzen egongo litzake gaur egun brigadak egiten ez dituen lan batzuek, adibidez tuberiak ur hornidurazko... tuberi guzti horiek azterketa sakon bat egitea eta guk kapazitate bat edukitzea gaur egun guri ur kontsorzioak ematen digu zerbitzu hori beraiek egin beharrean guk egiteko kapazitatea edukitzea. Baina horrek ez du esan nahi ur



Zumaiako Udala

2015IAKU0003-009-001

kontsorzioarekin gaur egun daukagun kontratua bertan behera lagako genukenik. Dakizuen bezala Udalak bajan gestionatzen duelako eta altan gestionatzen duelako ur kontsortzioak baina bajakoak Udalak jarraituko lukeelako gestionatzen baina bere osotasunean. Teknikoen iritziz lanak zuzenean ematea eraginkorragoa da, eta teknikoei sinetsi behar zaie udal gobernuarentzat bai ona bai txarra denean, eta orain oposizioak, berriz, arpegiratzea txosten teknikoari jarraitzen duela udal gobernuak ez du bidezkoa ikusten. Azkenik, gaur egun brigada osatuta efektibamente zortzi pertsonaz baina ahaztu gabe gaur egun dagoen brigadak ez diola erantzuten hor txostenean agertzen den egitura horri, izan ere gaur egun kontratatatu diren zenbait pertsona datozerako Foru Aldundiak bere garaian jarri zituen diru laguntza batzuen oinarrien arabera. Eta diru laguntza horiek eskuratzeko oinarri horiek zeuzkaten ezaugarri batzuek eta ezaugarri horiek hain zuen ziren zirenak ez Zumaiako egoerari erantzuten zirenak, baizik eta orokortasun batean beste egoera batzuei erantzuten zirenak eta guk horretaz baliatu ginen gutxienez brigada handitzeko.

Aitor Leizak (ARALAR) esan du eztabaidea honetan galdera bat etortzen zaiola burura eta hain zuen ere bere garaian EAJ-PNV udal gobernuan zela ea ikerketa horiek egin ziren brigada desegin zenean –gogoratu du bere aita udal funtzionario izan zela–

ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: 7 boto (6 eh bildu, 1 aralar)

Kontrako botoak: 5 boto (4 eaj-pnv, 1 pse-ee)

Abstentzioak: 0 boto

Erabakia: Zumaiako udaleko 2015eko Plantila eta Langileen Lanpostuen Zerrendaren aldaketa onartu da.

6.- SAN JUAN EGOITZA:

SAN JUAN EGOITZAREN INGURUKO HITZARMENAREN ALDAKETA ONARTZEA, BIDEZKO BADA

ZUMAIAKO UDALAREN, ADINEKOENTZAKO SAN JUAN EGOITZA” ERAKUNDE AUTONOMOAREN ETA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ARTEKO HITZARMENA, ESKUALDATZEKO ZUMAIKO “SAN JUAN” ADINEKOENTZAKO UDAL EGOITZAREN



Zumaiako Udala

2015IAKU0003-009-001

KUDEAKETA.

Donostian, 2014ko ren an

BILDURIK

Batetik, Zumaiako Udaleko alkatea, Udal horren ordezkari gisa, eta "San Juan adinekoentzako egoitza" erakunde autonomoaren Zuzendaritzar Batzordeko lehendakari gisa berariaz ahaldundua ekitaldi honetarako, osoko bilkurak datan hartutako erabakiaren arabera

Bestetik, Ander Rodriguez Lejarza, Gizarte Politikako Departamentuko foru diputatua, Gipuzkoako Foru Aldundiaren ordezkari gisa, eta ekitaldi honetarako ahalmenak, Diputatuaren Kontseiluak datan hartutako erabakiaren arabera (erabaki hori Batzar Nagusien Osoko Bilkurak berretsi zuen datan)..

Bi aldeek elkarri aitortu diote hitzarmen hau sinatzeko nahikoa ahalmen, eta hori horrela

ADIERAZTEN DUTE

LEHENA.- Eusko Legebiltzarrak 2008ko abenduaren 5ean onetsi zuen 12/2008 Legeak, Gizarte Zerbitzuei buruzkoak, 22. artikuluaren definitzen du zein diren Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazioen eta Zerbitzuen Katalogoa sartuta dauden zerbitzuak, euskal administrazio publiko eskumenek bermatu beharrekoak.

Artikulu horretan bi apartatu bereizten dira: batetik, lehenengo apartatuan daude lehen mailako arretako gizarte zerbitzuak, 42.4 artikuluaren arabera udalen eskumenekoak direnak -telelaguntza zerbitzua izan ezik, hori Eusko Jaurlaritzari baitagokio;- bestetik, bigarren apartatuan daude bigarren mailako arretako gizarte zerbitzuak, 41.3 artikuluaren arabera foru aldundien eskumenekoak direnak -40.3 artikuluak Eusko Jaurlaritzari egozten dizkionak salbu-.

BIGARRENA.- Legeak foru aldundien esku uzten dituen bigarren mailako arretako gizarte zerbitzuen artean daude adinduentzako egoitza-zentroak eta autonomia mugatuak eragindako premiei erantzuteko eguneko zerbitzuak edo zentroak (22. artikuluko 2.4.1 eta 2.2.1 apartatuak hurrenez hurren).

HIRUGARRENA.- Legeak ezarritako eskumen banaketa horren aurretiko errealtitateak eragin du gaur egun, oraindik ere, udalek kudeatzea udal titularitatea duten adinduentzako egoitza-zentro eta eguneko zentro asko, nahiz eta Foru Aldundiak finantzatu, bi entitateen arteko lankidetza hitzarmenen arabera.

LAUGARRENA.- Gizarte Zerbitzuen Legeko bigarren xedapen iragankorrik urtebeteko epea ezarri zuen, legea indarrean sartzen zenetik, euskal administrazio publikoek legean aurreikusitako eskumen banaketa egin zezaten.

BOSGARRENA.- Beraz, lege xedapen hori betetzeko, ezinbestekoa da Udalak egoitza-zentroaren gaineko eskumena Gipuzkoako Foru Aldundiari eskualdatzea, barruan direla Udalak, bai zuzenean bai udaleko arlo publikoko edozein entitateren bitartez, egoitza zentroaren kudeaketarako erabiltzen dituen baliabideak.

SEIGARREN.- Gipuzkoako Foru Aldundiak bere antolaketa egokitzeko behar duen denbora izan dezan -zentroaren gaineko eskumena benetan gauzatzeko beharrezkoak diren prozedura guztiak bideratu ahal izateko-, Zumaiako Udalak, bai zuzenean bai udaleko arlo publikoko edozein entitateren bitartez, aipatutako prozeduretako batzuk kudeatzen jarraituko du, aldi baterako eta salbuespenez.

Horretarako, Udaleko organo eskudunek, erakunde autonomoak eta Foru Aldundiak hitzarmen hau sinatzea erabaki dute, klausula hauen arabera

KLAUSULAK

LEHENA.- Eskualdatuko den zerbitzua.



Zumaiako Udala

2015IAKU0003-009-001

Gipuzkoako Foru Aldundiak beregain hartzen du "San Juan" izeneko egoitzan pertsona adinduentzat ematen den egoitza zerbitzuaren gaineko eskumena. Zerbitzu horren gaineko eskumena zuzenean gauza daiteke edo, bestela, eskualdatuko den zerbitzua ematea xede duen foru sektore publikoko entitate baten bidez..

Gipuzkoako Foru Aldundiak ahalbideratuko du Zumaiako udalaren edo, hala badagokio, erakunde autonomoaren partaidetza egoitzako partaidetzako organoetan, erakunde horrek edo honek izendatuko duen pertsonaren bidez.

BIGARRENA: Eskualdatzen den ondasun higiezina.

Aurreko klausulan xedatutakoa gauza dadin, Zumaiako Udalak jarraian deskribatzen den ondasun higiezinaren eta bertan dauden altzari, ekipamendu eta materialen doako lagapena egingo du:

Higiezinaren gaur eguneko erregistro deskripapena (laburtuta): HIRITARRA. ZAZPI ZENBAKIA – ONGINTZAKO ETXE BERRIA, Zumaiako San Jose kalean. Beheko oina eta bi solairu altu ditu, eta lorategi eta baratzeko propioaz dago inguratuta. Mugakide ditu: hegoaldean, San Jose kalea; iparraldean, gurdibidea; ekialdean, "Ubillos" dorretxea (Kaldesenekua); eta mendebaldean, Iturriko baserriaren lurra. Azalera: Hiru mila hirurehun eta hirurogeita sei metro karratu (3.366 m²).

Lorategia eta baratzea zeuden lekuak beste eraikin bat eraiki da: EGOITZA OSPITALEA HANDITZEA. Forma laukizuzena du: hamahiru metro eta laurogeita hamar dezimetro alde batetik eta hamaika metro hirurogeita hamabost dezimetro karratu bestetik; horrela, guztira, ehun eta hirurogeita hiru metro eta hogeita hamabi dezimetro karratu dira. Erdisotoko oina, beheko oina eta goiko oin bat ditu. Mugakide ditu, alde guztiak, bere lurra. San Jose kaletik sartzen da eraikinean, eskailera baten bidez.

Kargak: Ez du kargarik.

Erregistro datuak: Inskripzioa Azpeitiko Jabetzaren Erregistroan: 1151 liburukia, 94 liburua, 31 folioa, 4818 finka.

Katastroko datuak: Zenbaki finkoa: 3037144 Y. Erreferentzia kastastra: 6094314.

Higiezinaren kalifikazioa: Jabari publikoko ondasuna.

Hirigintzako datuak: Ekipamendu soziala, G.5.3.1. HA 03 Arrabal Odieta, San Jose.

Balorazioa: XXXX euro.

Higiezinaren doako lagapena egiteko kontuan hartuko da zer xedatzen duten Ondasunen Erregelamenduko 8., 109., 110. eta 111. artikuluek eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Ondasunari buruzko 1996ko uztailaren 9ko 8/1996 Foru Arauko 36. artikuluak.

Lagapena honako baldintzetan egindo da:

1.- Lagapenaren aurretik, Udalak hau bereiziko du aipatutako 4818 erregistro-finkatik, beste erregistro-finka ezberdin bat osatzeko: Egoitza Ospitalea Handitza izeneko eraikina eta horren funtzionamendurako behar den lur zatia. Erregistro-finka sortuaren titularra Udalak izango da.

Berezketa hori egiteko, Gipuzkoako Foru Aldundiaren onespresa beharko da eta gastuak, edozein eratara, Zumaiako Udalaren kargura izango dira.

Berezketa egin ondoren, Zumaiako Udalak finka nagusiaren gainerakoa (4818 erregistro-finka) lagako dio doan Gipuzkoako Foru Aldundiari. Finka horretan dago Ongintzako Etxe Berria izenarekin ezagutzen den eraikina, bereak diren lurrekin batera.

2.- Gipuzkoako Foru Aldundiak ondasuna atxikiko du gizarte zerbituetara, eta ezingo du beste helburu desberdinatarako bideratu. Eraikinen egungo erabilera –adineko pertsonentzako egoitza- aldatu eta gizarte zerbitzuen arloko beste erabilera bat ezari nahi izanez gero, Udalaren adostasuna beharko da.

3.- Ondasun higiezina 2. puntuaren aipatu den helburua ez den beste zerbaiteara bideratzeko gero, Udalaren baimenik gabe gizarte zerbitzuen arloko beste erabilera batetara bideratzeko gero, edo jarduera bertan behera utziz gero, lagatako ondasuna itzularazteko prozesuari ekin diezaiok Zumaiako Udalak, ondasun eta osagarriak barne.



Zumaiako Udala

2015IAKU0003-009-001

4.- Higiezinaren lagapena formalizatzearen ondoriozko gauza guztiek eta baita, gertatuz gero, itzularaztea formalizatzeko gauzaak, Gipuzkoako Foru Aldundiak ordainduko ditu.

5.- Lagapena gauzatu ahal izateko, Zumaiako Udalak bederatzi (9) hilabeteko gehieneko epean izapidezko doako lagapen espedientea, hitzarmen honen seigarren estipulazioan ezarritako eskualdaketaren eraginkortasun datatik aurrera.

Aipatutako ondasun higiezina Gipuzkoako Foru Aldundiaren alde eskualdatzen den bitartean –gehienez ere bederatzi (9) hilabeteko epean-, Zumaiako Udalak doan lagako dio Gipuzkoako Foru Aldundiari finkaren erabilera, aipatu helburuetarako, eskualdaketaren eraginkortasun datatik aurrerako ondorioekin.

HIRUGARRENA.- Eskualdatzen diren eskubideak eta betebeharra.

1.- Aldundiak zerbitzuaren gaineko eskumena bere gain har dezan, Zumaiako Udalak edo, hala badagokio, "Adinentzako San Juan egoitza" erakunde autonomoa Gipuzkoako Foru Aldundiari eskualdatzen dizkio Udalak sinatura dituen eta hitzarmen hau sinatzen den egunean indarrean dauden kontratu, hitzarmen, itun eta bestelako negozio juridikoak, eta Aldundia subrogatu egiten da horien guztien ondoriozko eskubide eta betebeharretan.

Subrogazioak soili eragiten die LEHENENGO klausulan aipatzen den zerbitzu-eskumena gauzatzearren ondoriozko eskubide eta betebeharrei. Eskubide edo betebeharra eskualdaketa gertatu aurreko jardunaren ondorio baldin bada, Zumaiako Udalaren edo, hala badagokio, "Adinentzako San Juan egoitza" erakunde autonomoaren ardura izango da

Langileen lan baldintzen egonkortasuna bermatze aldera, Kibia erakunde autonomoa gainbegiratuko du hitzarmen honen bidez eskualdatzen den kontratu administratiboaren esleipendun edo zerbitzu-emaile den entitateko langileen subrogazioa lan arlako arautegiari jarraituz egingo dela. Esleipendunaren aldetik, aipatutako subrogazioa aplikagarria izango zaie zuzenean kontratuaren xede diren funtzoak bete eta San Juan egoitza zentroan lan egiten duten langileei. .

1. eranskinetan jaso da Udalak edo, hala badagokio, "Adinentzako San Juan egoitza" erakunde autonomoak hitzarmen hau sinatzen den egunean indarrean dituen kontratu, hitzarmen, paktu edo beste negozio juridikoen zerrenda..

2.- Hitzarmena sinatzen denetik bi hilabeteko epean sinatuko dira altzari, ekipo eta inventariatu daitezkeen materialak eman izanaren eta jaso izanaren aktak,

3.- Bi hilabeteko epe horretan entregatuko dira, halaber, eskualdatutako zerbitzuko dokumentu eta espedienteak..

LAUGARREN.- Eskualdatutako zerbitzuari atxikitako langileak

Hitzarmen hau sinatzen den egunean eskualdatuko den zerbitzuari atxikitza dauden langileak, Zumaiako Udalak edo, hala badagokio, "Adinentzako San Juan egoitza" erakunde autonomoa kontratatutakoak, 2015eko apirilaren 1etik aurrera Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskumenekoak izango dira funtzionalki eta hierarkikoki, hitzarmen hau sinatzen den egunean indarrean dagoen legeriaren arabera dituzten eskubideekin jarraituz.

2. eranskinetan jaso da eskualdatzen diren langileen zerrenda, ondorengo informazioarekin: Izena, abizenak, kategoria, antzinatasuna, hitzarmen hau sinatzen den egunean duten ordainsaria.

BOSGARREN.- Erregimen ekonomikoa.

1.- Zumaiako Udalak edo, hala badagokio, "Adinentzako San Juan egoitza" erakunde autonomoa jarraituko du kudeatzeten, salbuespenet eta modu iragankorrean, lagapenean utzik den zerbitzuko erabiltzaileen ekarpenak eta fakturen ordainketak, Gipuzkoako Foru Aldundiak bere antolaketa egokitutarte, eskumena benetan gauzatzeko berekin ekartzen dituen prozedurak bideratu ahal izateko. Egoera hau gehienez ere 2015eko ekainak 30 arte luzatu daiteke..

2.- Epe horretan, Gipuzkoako Foru Aldundiak hilero ordainduko dio Zumaiako Udalari edo, hala badagokio, "Adinentzako San Juan egoitza" erakunde autonomoari eskualdatutako zerbitzuei Diputatuen Kontseiluak onetsitako erreferentziazko gehieneko tarifik aplikatzearen ondoriozko zenbatekoak,, erabiltzaileen ekarpenak kenduta. Aldi berean, ordainketa horretan sartuko da onetsitako gehieneko tarifik estaltzen ez duten zerbitzua kudeatzearren kostu gehigarria. Kostu hori bat etorriko da Betean aholkularitza enpresak, 2013an, zerbitzuari buruz egindako txostenean jasotako datuekin.

3.- Ekarpenak kobratzeko eta fakturak ordaintzeko epe iragankor hori amaitzen denean, Zumaiako Udalak edo, hala badagokio, "Adinentzako San Juan egoitza" erakunde autonomoak egin diren kobrantza eta ordainketa guztien zerrenda aurkeztuko dio Gipuzkoako Foru Aldundiari bi hilabeteko epean, horiek zuritzen dituzten faktura eta agiriek batera.



Zumaiako Udala

2015IAKU0003-009-001

Likidazioa aurkezten denean, Gipuzkoako Foru Aldundiak Udalak edo, hala badagokio, "Adinentzako San Juan egoitza" erakunde autonomoak haren izenean jasotako eta egindako ordainketen likidazioa egingo du.

Udalak likidazioa onartzen duenean, Udalari egindako transferentziengatik gainditu egiten badu ordaindutako fakturen eta jasotako ekarpenen arteko saldoa, Zumaiako Udalak edo, hala badagokio, "Adinentzako San Juan egoitza" erakunde autonomoak hilabeteko epean itzuliko dio Gipuzkoako Foru Aldundiari gehiegizko zenbateko hori.

Aldi berean, aurreko paragrafoan aipatutako saldoa Zumaiako Udalaren edo, hala badagokio, "Adinentzako San Juan egoitza" erakunde autonomoaren aldekoa bada, Gipuzkoako Foru Aldundiak hilabeteko epean ordainduko dio.

SEIGARRENA.- Eskualdaketa gauzatuko den eguna.

Eskualdatzea indarrean jarriko da hitzarmen hau sinatzen den hilabetearen hurrengo hileko lehen egunean.

Ados daudela adierazteko, hiru aldeek hitzarmen hau sinatu dute, hiru aletan eta orri guzietan, goian adierazitako datan eta egunean, eta ale bana hartu dute.

EL ALCALDE-PRESIDENTE DEL AYUNTAMIENTO Y PRESIDENTE DE LA JUNTA DIRECTIVA DEL ORGANISMO AUTÓNOMO

Alkateak gaia aurkeztu du.

Montse Aranak (EAJ-PNV) ez dutela informazio nahikorik.

ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: 8 boto (6 EH BILDU, 1 PSE-EE, 1 ARALAR)

Kontrako botoak: 0 boto

Abstentzioak: 4 boto (4 EAJ-PNV)

Erabakia: San Juan Egoitzaren inguruko hitzarmenaren aldaketa onartu da.

7.- PROPOSAMENA:

7.1.- UDALA OSATZEN DUTEN TALDEAK AURKEZTURIKOA: HOMOFOBIAREN ETA TRANSFOBIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNERAKO (MAIATZAK 17) ERAKUNDE-ADIERAZPENA.

Erakunde-adierazpena, Homofobiaren eta Transfobiaren aurkako Nazioarteko Egunera (maiatzak17)



2015IAKU0003-009-001

Kontuan izanik gizon-emakume guztiak aske eta duintasun eta eskubide berberak dituztela jaiotzen direla, eta estatuek saihestu egin behar dituztela sexu-orientazioagatiko, genero-identitateagatiko eta genero-adierazpenagatiko indarkeria nahiz gorrotoa eta errespetatu egin behar dituztela emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioak;

Aintzat hartuta Giza Eskubideen Aldarrikapen .Unibertsala,- Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itúna (EZPNi) eta giza eskubideen nazioarteko legeria sexu-orientazioari eta genero-identitateari buruzko gaietan aplikatzeko Yogyakartako Printzipioak (2007);

Aintzat hartuta, halaber halaber, Nazio Batuen Giza Eskubideen Kontseiluaren 17/19 Ebazpena, 2011ko ekainaren 17koa, giza eskubideei, sexu-orientazioari eta genero-identitateari buruzkoa, eta Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen goi-komisarioaren 2011ko azaroaren 17ko txostena (*Leyes y prácticas discriminatorias y actos de violencia cometidos contra personas por su orientación sexual e identidad de género*);

Kontuan hartuta Amnesty internationalen txosten hauek: Amor, Odio y Ley. Despenalizar la homosexualidad (2008), Cuando el amor es delito. Penalización de las relaciones sexuales entre personas del mismo sexo en el África Subsahariana (2013) eta Por ser quien soy. Homofobia, transfobia y crímenes de odio en Europa (2013);

Nahigabea adieraziz homosexualitatea oraindik legez kanpokoa delako 80 herriaidetan (horietako 36 afrikarrak) eta heriotza-zigorraz zigortzen dutelako Afganistanen, Brunein, Iranen, Mauritanian, Pakistanen, Saudi Arabian, Sudanen, Yemenen eta Nigeriako eta Somaliako estatu batzuetan;

ZUMAIKO udalak:

1. Kezka sakona adierazi nahi du Amnesty internationalek dokumentatu dituen kasu batzuengatik. Kasu horiek argi erakusten dute homosexualitatea kriminalizatu egiten dela, homofobiagatik edo transfobiagatik egindako krimenak zigorrik gabe geratzen direla eta gayek, lesbianek, bisexualek, transexualek, transgeneroek eta intersexualek tratu txarrak jasotzen dituztela. Honako hauek dirá:

- **KAMERUNEN, JEAN-C LAUDE ROGER MBEDE** kontzientzia-presoari "homosexualitatea eta homosexualitate-saioa" leporatuta ezarritako hiru urteko espelxe-zigorra. 2011ko martxoaren 2an atxilotu zuten, eta 2012ko uztailean eman zioten baldintzapeko askatasuna, baina Yaundeko Apelazio Gorteak **berriz** espelxeratzeko agindu zuen 2013ko abenduan. Tragikoki hil zen, 2014ko urtarilean.
- **HEGOAFRIKAN, NOXOLO NOGWAZA** aktibista lesbianaren hilketa. 2011ko apirilaren' 24an, bortxatu, eta hil arte kolpatu zuten, Kwa Theman (Gauteng) (poliziaren 635/04/2011 zenbakidun kasua).
- **TURKIAN, AHMET YILDIZ** hilketa. Gay aitortua, tiroz hil zuten Üsküdarren (Istanbul), 2008ko uztailaren 15ean. iritzi orokorraren arabera, "ohorearen" izenean egindako hilketa izan zen.

BULGARIAN, MIHAIR STOYANOVen hilketa. 2008ko irailaren 30ean, basatiki kolpatu zuten, hil arte, Sofiako Borisova Garden parkean. Hilketaren arrazoia: harén sexu-orientazioa (erasotzaileek uste zutena). - **BIEGORRUSIAN, IHAR TSIKHANYUKUN** homosexualaren kasua. Poliziak galdeketa egin zion 2013ko urtarilean, Lambdako Giza Eskubideen Zentroa erregistratzen saiatu zirenean. Kolpatu egin



2015IAKU0003-009-001

zuten, eta mehatxuak eta abusuak pairatu zituen gay izateagatik. Haren zauriak ez zitzuten dokumentatu, eta tratu txarrengatik jarri zuen salaketa ez dute ikertu.

2. Indarrez gaitzesten du lesbianen, gayen, bisexualen, transexualen, transgeneroen edo intersexualen aurkako indarkeria eta diskriminazio oro;
3. Gizon-emakumeak beren sexu-orientazioagatik edo genero-identitateagatik diskriminatzeko, azipetzeo eta zigortzeo bidea ematen duten edo eman dezaketen lege guztiak indargabetzeo eskatu nahi du;
4. Sexu bereko pertsonekin sexu-harreman baimenduak (egiazkoak edo ustezkoak) izateagatik atxilotutako edo zigortutako pertsona oro berehala aske uzteko eskatu nahi
du; . * *,
5. Justizia-administrazioko edozein mailatan sexu-orientazioan edo genero-identitatean oinarritutako diskriminazio oro debekatzeko eta ezabatzeko beharrezko neurri guztiak har daitezela eskatzen du, izan legegintzakoak, administraziokoak eta beste edozein arlotakoak;
6. Sexu-orientazioan edo genero-identitatean oinarritutako eskubide-urruketa guztien salaketak eta txostenak dagozkien agintariekin bizkor eta inpartzialtasunez ikertuko dituztela bermatzeko eskatzen du, baita egileak kontuak ematera eta epaimahai baten aurrean agertzen behartzeko ere. ildo horretan, adierazpen honetako 1. puntuan aipatuta ageri diren kasuak nabarmendu nahi ditu;
7. Sexu-orientazioa eta genero-identitatea (izan egiazkoak edo ustezkoak) estatu guztietai "gorroto-krimenak" eragin ditzaketen ezaugarri babestutzat sar daitezela eskatu nahi du;
8. Eskatu nahi du, halaber, poliziako, komunikabideetako, osasun arloko eta irakaskuntzako profesionalei prestakuntza eskain diezaietela sexu-aniztasunari eta gizon-emakume ororen giza eskubideei buruz, LGBT! kolektiboko kideenak barne, eta prestakuntza hori ikasketen programa ofizialean sar dezatela;
9. Giza eskubideen defendatzaleak xaxatzeari uzteko eskatu nahi du, eta babes egokia bermatzeko sexu-orientazioari eta genero-identitateari lotutako giza eskubideak defendatzeagatik arriskuan daudenentzat; .
10. Eskumena ematen dio Udalako Alkateari, hitzarmen hau bidaltzeko Kameruneko, Hegoafrikako, Turkiako, Bulgariako eta Bielorrusiako gobernuetara Espanian dituzten enbaxaden bitartez.

-

ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: 12 boto (6 EH BILDU, 4 EAJ-PNV, 1 PSE-EE, 1 ARALAR)



Kontrako botoak:

Abstentzioak:

Erabakia: Homofobiaren eta transfobiaren aurkako nazioarteko eguneko (maiatzak 17) erakunde-adierazpena onartu da.

8- ESKARIAK ETA GALDERAK.-

Montse Aranak (EAJ-PNV) proposatu du plenotik Nepaleko herriari elkartasuna luzatzea eta diru-laguntza.

Alkateak bat egin du eta esan du larrialditarako diru-laguntzatik bideratuko dutela.

Montse Aranak (EAJ-PNV) esan du plenoak bilketa sistemaren aldaketaren akordioa hartu zuela eta hori legalki edo formalki nola geratzen den gaia.

Alkateak esan du Mankomunidadeak lizitazioan atera zuen kontratazioa bertan behera utzi duela eta aztertuko dela gaia.

Eztabaideko beste gairik ez dagoenez, Alkate Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, arratsaldeko zortziak eta hogei minuto direnean eta nik, Idazkariak, fede ematen dut.

Idazkaria



Zumaiako Udala

2015IAKU0003-009-001

ACTA DE LA SESION PLENARIA nº 9I.-

En la villa de Zumaia, siendo las diecinueve horas del día treinta de abril de dos mil quince, se constituye en el Salón de Sesiones de esta Casa Consistorial del Pleno del Ayuntamiento, al objeto de celebrar sesión ordinaria con arreglo al orden del día previamente señalado y habiendo sido citadas en tiempo y forma, acuden los siguientes miembros de la corporación:

Presidente: Sr. Iñaki Agirrezabalaga Alkorta

Concejales: Sr. Iñaki Ostolaza Esnal

Sr. Eneko Agirre Maiora

Sra. Maitane Agirre Arrieta

Sra. Arritokieta Gonzalez Elosua

Sr. Peru Fernandez-Arroiate Txapartegi

Sr. Montse Arana Perez

Sra. Edurne Egaña Manterola

Sr. Isidro Fernandez Echave

Sr. Juan Carlos Cendoya Aizpurua

Sr. Aitor Leiza Alberdi

Sr. Emiliano Cabañas Gonzalez

No presentes Sr. Xabier Gallastegi Idigoras

Secretario: Gorka Urgoiti Agirre



ORDEN DEL DÍA

1.- APROBACION, SI PROCEDE, DE LAS ACTAS DE LAS SESIONES ANTERIORES:

(25.09.2014 núm. 85;
30.10.2014 núm. 86;
27.11.2014 núm. 87;
19.12.2014 núm. 88;
29.01.2015 núm. 89;
26.02.2015 núm. 90.)

Se han aprobado todas las actas.

2.- SECRETARIA -PADRON MUNICIPAL.-

2.1.- PROPOSICION:

APROBAR SI PROCEDE EL CONVENIO DE COLABORACION ENTRE LA AUTORIDAD TERRITORIAL DEL TRANSPORTE DE GIPUZKOA Y EL AYUNTAMIENTO DE ZUMAIA EN MATERIA DE CESION DE DATOS DEL PADRON MUNICIPAL DE ZUMAIA.-

CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE LA AUTORIDAD TERRITORIAL DEL TRANSPORTE DE GIPUZKOA Y EL EXCMO. AYUNTAMIENTO DE ZUMAIA EN MATERIA DE CESIÓN DE DATOS DEL PADRON MUNICIPAL DE ZUMAIA

En San Sebastián, a de 2014.

REUNIDOS

De una parte, D^a. Larraitz Ugarte Zubizarreta, en su calidad de Presidenta, en nombre y representación de la AUTORIDAD TERRITORIAL DE TRANSPORTE DE GIPUZKOA (en adelante, ATTG).

Interviene especialmente facultada a estos efectos por acuerdo adoptado por la Asamblea General Ordinaria de la ATTG celebrada con fecha 31 de octubre de 2014.

Y de otra parte, D. IÑAKI AGIRREZABALAGA ALKORTA en su calidad de Alcalde, en nombre y representación del AYUNTAMIENTO DE ZUMAIA (en adelante el Ayuntamiento)

Interviene especialmente facultado a estos efectos por acuerdo adoptado por el Pleno de la Corporación en sesión de 30 de abril de 2015.

Las partes intervenientes se reconocen mutuamente la capacidad legal necesaria para celebrar el presente Convenio de Colaboración.

ANTECEDENTES

I.- La ATTG, es un Consorcio conformado por la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi, la Diputación Foral de Gipuzkoa, y los Ayuntamientos de Donostia, Irun, Errenteria, Eibar, Arrasate-Mondragón, Zarautz y Hernani teniendo por finalidad cohesionar todo el Territorio Histórico a través de un modelo de transporte sostenible y apoyar los objetivos de las administraciones públicas en materia de movilidad. Su cometido es favorecer la movilidad accesible y de calidad de la ciudadanía en el Territorio Histórico de Gipuzkoa.



II.- La Diputación Foral de Gipuzkoa, a través de la txartela Lurraldebus, consiguió el establecimiento de un marco integrado en los autobuses interurbanos de Lurraldebus, es decir, estableció una misma zonificación, mismas tarifas, mismo modo de pago y mismas bonificaciones/descuentos, siendo a su vez un servicio interoperable con los urbanos de Donostia/San Sebastián, Irun, Arrasate, Hernani, Errenteria y Oiartzun, así como con Renfe Cercanías. La txartela Lurraldebus contribuyó a incrementar el uso del transporte público interurbano de manera considerable.

Con la intención de ir un paso más allá y poner en marcha la integración tarifaria en Gipuzkoa en los principales modos de transporte público del Territorio Histórico, dejando abierta la posibilidad de la adhesión en el futuro de otros modos, la Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa ha definido un marco tarifario global para todo el transporte público del Territorio. Así, en 2012 firmó junto con los principales agentes del Territorio (Gobierno Vasco, Diputación Foral de Gipuzkoa, Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián, Ayuntamiento de Irun, Ayuntamiento de Errenteria, RENFE y EUSKOTREN) un Protocolo General de Colaboración para la implantación del sistema de integración tarifaria en el transporte público colectivo del Territorio.

El Protocolo, que estableció el marco de general de colaboración para el impulso de la implantación de dicho sistema, recogió que éste debería pivotar, entre otros, sobre la fijación de colectivos integrados en todos los modos de transporte del Territorio Histórico de Gipuzkoa, con aplicación de políticas sociales comunes en todos los modos.

El Anexo II del precitado Protocolo definió los colectivos especiales del sistema de integración tarifaria, estableciendo como requisito para obtener la tarjeta correspondiente a dichos colectivos, el empadronamiento en Gipuzkoa.

III.- Las entidades consorciadas atribuyeron la gestión del billete único a la ATTG con la suscripción de los convenios para la implantación del sistema de integración tarifaria en el transporte público colectivo del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Con fecha 4 de marzo de 2013 se implantó la Integración Tarifaria de Gipuzkoa bajo la marca MUGI.

Por otra parte, con fecha 15 de marzo de 2013 la Diputación Foral de Gipuzkoa cedió a la ATTG los activos, derechos y obligaciones procedentes de LURRALDEBUS, S.L.U. necesarios para gestionar el sistema tarifario integrado del transporte público de viajeros en Gipuzkoa.

IV.- Actualmente, existen más de 130.000 tarjetas MUGI de colectivos, es decir, que exigen el empadronamiento en Gipuzkoa por parte de sus titulares.

El desarrollo de las funciones propias de la ATTG determina la necesidad de constatar por parte de la ATTG que las solicitantes de las tarjetas de colectivos MUGI se encuentran empadronadas en un municipio de Gipuzkoa.

V.- Entre los objetivos prioritarios de la ATTG figura la intensificación de las relaciones interinstitucionales de cooperación y el impulso de la modernización, racionalización y mejora de los recursos existentes, buscando, por un lado, la gestión eficaz de los recursos públicos y, por otro lado, la prestación de un mejor servicio a las personas usuarias y ciudadanía en general, simplificando los trabajos administrativos o facilitando la realización de determinados trámites, todo ello, sin menoscabo de implantar las garantías que procedan para salvaguardar el derecho a la intimidad de las personas y proteger sus datos personales.

